

## Malatu taldea

Jazz-fusioa egin zuten Bergarako Espoioian  
KULTURA, 24



## Francisco Gutierrez garaile Elgetan

51 txirindularik amaitu zuten 122 kilometroko kriteriuma  
KIROLA, 114-15

## Omara taldea

Flamenko fusioa Aramaion  
KULTURA, 22-23



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko uztailaren 17a • 3. urtea • 110. zenbakia • 0,90 euro

## Herritarren parte-hartzearen aldeko apustuak arrakasta izan du Antzuolan

*Herritarrak ikusle eta partaide izatea izan da aurten Jai batzordearen helburuetako bat*

**HONTZAREN JAITSIERA**  
Eguen gauerdian jaitsi zen kanpandorretik udaletxera; bigarrenz hamabost urtean

**MAIRUAREN ALARDEA**  
Hasi aurretik haren esanahia azaldu zuten jendaurrean; bestetik, eskopetak estreinatu dituzte

**HERRI SAGARDOTEGIA**  
Sagardotegiko giroa eroan zuten plazara atzo, eta horrekin esan zieten agur jai

Eguenean hasi eta atzora arte herriko jai nagusiak ospatu dituzte antzuolarrek. Oro har jaiak beherantz doazela-eta, esfortzu berezia eskatu diete herritarrei: inplikazioa. Hala, giroa suspertu nahi izan du Jai batzordeak. Herritarrek erantzun egin dute eta hori igarri egin da egitarauan. **6-7**



JOSETXO ARANTZABAL

Hainbat herritarrek, instrumentuak hartu eta txaranga inprobisatu zuten atzo. Kantu liburuxkak banatu, eta kalez kale ibili ziren.

## Hamar ortu gehiago Eskoriatzan

*Erretiratuendako egiten ari dira, Torrebason, eta izenematea zabalik dago* **11**

## Etxeko olio batzeko edukiontzia

*Arrasaten frogatuko dute prototipoa, sistema finkatu aurretik* **8**

## Foruak galdu zirela 130 urte barikuan

Uztailaren 21ean beteko dira 130 urte euskal lurralde historikoek foruak galdu zituztela. Hori gogora ekartzeko, orain dela 30 urte Bergarako alkateen taldean jardundakoak elkartuko dira. Bergarako udaletxean izango da hori, 11:00etan. **8**

### SUPER AMARA

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 **P** Bezeroentzako Aparkalekua



# GEUREAN

- Arrasateko Udalak lankidetzaz hitzarmena egin du Trafiko Zuzendaritzarekin | 10
- fagor Industrialek zentro logistiko berria zabaldu du Oñatiko Migelena auzoan | 10

Josu Zabala  
izendatu dute  
MUko errektore.  
Inaxio Oliveriren  
lekua hartuko du | 8

## IZARTU PROGRAMA

ANTZUOLAKO MENDEBALDEKO SARRERA | UZARRAGA ETA LIZARRAGA AUZOAK LOTZEN DITUEN ERREPIDEA INAUGURATU ZUTEN EGUBAKOITZEAN

# Aurrerantzean zirkulazio txikiagoa jasango dute antzuolarrek

*Gainbehera etorritako guneak berpizteko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso dute lanek. Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariordeak ireki zuen bidea modu ofizialean*

Jon Berezibar

Herriak jasan beharreko zirkulaziorako eta herritarrentzako hobekuntza nabaria izango da Antzuolan egubakoitzean Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariordeak inauguratu zuen bidea. Uzarraga eta Lizarraga auzoak lotzen ditu bideak eta Jose Angel Zabalo alkateak berak zehaztu bezala, "herrirako mendebaldeko sarrera izango da bidea" behin lanak amaitutakoan. Izan ere, Elay lantegira doazen kamioiak handik igaroko dira eta herriari sarrera berria emango zaio. Zabalok esan bezala, "behingoz mendebaldeko bidegurutze arriskutsuarekin amaituko" da. Jaurlaritzako Izartu programaren dirulaguntzarekin finantzatu ahal izan da bide berria. Planak Erkidegoan gainbehera etorritako guneen biziberritzea du helburu eta Antzuolan, sARBIDE berriaz gain, alde zaharreko urbanizatzeko lanak, Sagastiko parkea eta kultura etxe-gizarte etxerako dirulaguntzak ere jaso dira. Horrelako egitasmoekin, herri eta auzo mailan eragin gura dute udalak eta Jaurlaritzak elkarrekin. Zenarrutzabeitiak berak argitu bezala, "orain arte Euskadin errepide eta azpiegitura handietan egin da ahalegina eta orain herri eta auzoak zaindu" behar dira, "modu lokalean ekinez, herritik mundura ateratzeko". Hain zuzen ere, txarto dauden guneak hobetzea da planaren nahia eta Euskal Autonomia Erkidegoan 87 udalerrik jaso dute laguntza; biztanleriaren %85i eragingo die. Hori dela-

eta, Jaurlaritzaren inbertsio plan garrantzitsuenetakoa da Izartu programa.

### IBARREKO INBERTSIOA

Hala, Antzuolak aipatu proiektuetarako 1.168.987 euro jaso ditu, baina ez da izan laguntza jasotako Debagoieneko herri bakarra. Arrasaten egun Makatzena auzoan egiten dabilen errehabilitazio lanak ere Izartutik finantzatu dira zati baten eta baita Agorre-Santa Teresa guneetan egingo dituztenak ere. Bergaran Artekaleara eta Arruriaga kaleak konpondu dituzte eta Eskoriatzan trenbide zaharreko bidegorria izan zen inbertsioetako bat. Gaur egun Dorleta auzoa dabilen urbanizatzen eta 2008rako lur azpiko zabor edukiontzia eta Santa Marina gunea eta Aranburuzabala kaleak urbanizatuko dituzte Izartu programako laguntzei esker. Ibarrek guztira, beraz, 4,2 milioiko laguntza jasoko du gainbehera datozen guneak indartu eta birgaitzeko.

**Zirkulazioa Antzuola erditik pasatu barik, bide berriak joango da**

**Bergara, Arrasate eta Eskoriatzak ere jaso dituzte gune degradatuak pizteko laguntzak**



Lehendakariordeak zabaldu zuen egubakoitzean bide berria.

JON BEREZIBAR

### • ELAY LANTEGIKO ZUBIAREKIN IRAILEAN



**BEASAIN-DURANGOREKIN LOTURA.** Antzuolako mendebaldeko sarrera berriko lanekin amaitzeko zati bat falta da oraindik. Alkateak azaldu zuenez, irailean hasiko da Aldundia orain lanak amaitu dituzten lekutik Beasain-Durango errepidearekin lotura izango den zatiko lanak egiten. Sei hilabeteko epea aurreikusten dute.

### Esandakoa

"Gobernu eta udalak elkarrekin lanean, herri eta auzoak iratzarri egin behar ditugu, herritik mundura ateratzeko"

IDOIA  
ZENARRUTZABEITIA |  
LEHENDAKARIORDEA

"1983. urteko arauetatik ikusi da lan horien premia eta Izartu planari esker lortu da azkenean egitea"

JOSE ANGEL ZABALO |  
ANTZUOLAKO ALKATEA



IZARTU PROGRAMA

• 4,2 MILIOI EURO JASO DITU IBARRAK TXARTO DAUDEN GUNEETAN INBERTITZEKO



**ANTZUOLA.** Uzarraga-Lizarragan bidea egiteaz gain, aldameneko jolas parkera doan zubia ere eraiki dute auzoari bizitasuna emateko. Izartu programatik jasotako diruarekin, egubakoitzean inauguratutako bidez gain, alde zaharra urbanizatu eta Sagastin txukuntze lanak egin gura dira eta kultura etxe eta gizarte etxean inbertitu.



**ARRASATE.** Makatzena eta Santa Teresa auzoak dira Arrasateko degradatuenetak. Arrasateko Udalak 1.533.343 euro jaso ditu gune horiek hobetzeko. Makatzenen dagoeneko hasi dira konpontze lanekin eta Agerre-Santa Teresa inguruetan 2008. urterako amaitu gura dituzte errehabilitazioak.



**BERGARA.** Artekalea eta Arruriaga kaleetan egindako konponketek ere Izartu programaren laguntza jaso zuten. Baita Aroztegi erakusketa aretoak ere. 1.455.684 euroko dirulaguntza jaso da herrian eta Zubiaurre eta Martoko auzoetan eta San Antonio kaleetan egingo dira lanak datozen urteetan.



**ESKORIATZA.** Trenbide zaharreko bidea aprobetxatuta egindako bidegorria ere Izartu lagundutako egitasmoa izan da, Dorleta auzoan egiten dabilzan lanak diren moduan. 2008. urtea baino lehenago Santa Marina eta Aranburuzabala kaleak urbanizatzen hasi dira, horietarako ere laguntzak eskatu zituen-eta Udalak.

**AZKARATE**  
aroztegia



*Arotz lanetan  
behar duzun guztia*



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak





ERREGE SEMINARIOA | UNED-EK HERRIAN JARRAITZEA BERMATUKO DU, ARANZADI IKASTOLA FINKATU EGINGO DA ETA AUDITORIOA AHALBIDETUKO DU

# Uned Fundazioari laga dio Estatuko administrazio orokorrak seminarioa

*Errege Seminarioa erabiltzeko lagapena egitea lortu dute Bergarako Udalak eta Uned-ek. Gainera, eraikinaren jolaslekua erosiko du Udalak, azpian aparkalekuak egiteko*

Monika Belastegi

"Alkate daroan 15 urteotan egindako gestioetan garrantzitsuena da. Egun historikoa da", esan zuen Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak barikuan, Errege Seminarioa erabiltzeko lagapenaren berri emateko prentsaurrekoan. Han ziren baita ere Paulino Luesma Gobernuoko delegatua eta Juanjo Alvarez, Bergarako Uned-eko zuzendaria.

## ASPALDIKO NAHIA

Ministroen Kontseiluak uztailaren 7an onartu zuen Errege Seminarioa Uned-Bergara Fundazioari lagatzea. Askotan erreklamatu izan zaio Estatuko administrazio orokorrari eraikina, Mendizabalen desamortizazioan (1836. urtean) domingotzari konfiskatu zietenetik. Hala, uztailaren 7a ezkeror urtetako nahia gauzatu da eta gaur egun eraikinak dituen erabiltzaileei dauden egoera prekariotik irteko aukera ematen diete, Uned ikastetxe elkartuari eta Aranzadi ikastolari.



Luesma, Gallastegi eta Alvarez egubakoitzean, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Juanjo Alvarezek, Bergarako Uned ikastetxeko zuzendariak, azaldu zuenez, "lagapenerako erabakigarria izan da Uned Fundazioa sortzea, duela zazpi urte". "Modu horretan izaera juridikoa eman genion ordura arte zentro elkartua baino ez zenari", gehitu zuen.

## LAGAPENAREN BALDINTZAK

Transferentziaren baldintzak Paulino Luesmak azaldu zituen: Uned-Bergara Fundazioari laga diote eraikina, irakaskuntza eta kultura erabilpenerako. Hala, Bergarako Uned Ikastetxe Elkartuak bermatuta ikusi du bere etorkizuna Bergaran.

Era berean, Uned-ek eraikinaren zatia lagako die –beste lagapen baten bitartez– Aranzadi ikastolari eta Udalarari. Lehenengoari gaur egun erabiltzen duen lekua lagako dio eta modu horretan erabat finkatu ahal izango da Errege Seminarioan. Bestetik, Udalak hainbeste urtean

itxarondako auditorioa egin ahal izango du. Seminarioaren elizan egingo dute auditorioa eta Gallastegi alkateak esan zuenez, proiektua eskatuta dago.

Lagapenok irailean egingo dituztela aurreratu zuten barikuan eta zatiketa horizontalarren bitartez eraikinak dituen 5.626 metroatik dagokion zatia izango du hiru aldeetako bakoi-tzak.

## APARKALEKUAK

### SEMINARIOKO JOLASLEKUAN

Seminarioko jolaslekua Udalarri saltzeko tramitazioa aurrera doala ere azaldu zuen egubakoitzean Luesmak, Gobernuoko delegatua. 4.822 metro koadro ditu eta Udalarri salduko diote aparkalekuak egiteko. Jolaslekuak gaur egun duen aisi-gune izaera izaten jarraituko du eta aparkalekuak lur azpian egingo ditu Udalak. Luesmaren esanetan, herri erdialdean dagoen aparkaleku arazoari irtenbidea emateko. Udalak 741.000 euro ordaindu beharko ditu Seminarioko jolaslekuarengatik: 235.456 euro dirutan ordainduko ditu eta gainerakoa, hau da, 505.543 euro, jolaslekuaren azpian eraikiko dituzten 24 garaje emanda.

Espedientea tramitatzen dabilela gehitu zuen Luesmak eta bukatu eta gero egingo dutela salmentako eskritura. Dena den, bai mena eman diote Udalarri egoki ikusten duenean lanekin hasteko.

Horrekin guztiarekin batera instituzioen arteko kolaborazioaren fruitu gisa azaldu zuten lagapena eta "bultzada politikoa" erabakigarria izan dela.

## Bukatuta Bergarako Bolu auzoko ur-biltegiko lanak

*Ura etxeraino eramateko loturak aldatzen dituztenean hasiko da martxan*

M.B.

Dagoeneko bukatu dituzte Bergarako Bolu auzoa urez hornituko duen ur-biltegia eraikitzeko lanak. 1.000 m<sup>3</sup>-ko –milioi bat litro– ur-biltegia egin dute: batez beste 24 orduko kontsumoari dagokion ur bolumena gehi sutei aurre egiteko erreserba gordetzeko ahalmena du. Horrekin,

1.755 lagun hornituko dituzte, Bolu auzoan.


Gaur egun udal banaketa saretik hornitzen da Boluko auzoa eta ura etxebizitza altuetara iristeko motoponpak erabili behar izaten dituzte bizilagunek uraren presio txikiarengatik. Ur biltegiarekin ez da motoponpen beharrik izango eta uraren hornidura zuzenean biltegitik egingo da. Ur-biltegia eraikitzeko lanak erabat bukatuta dauden arren, ez dute martxan jarriko etxerainoko loturak aldatu arte.

Lanon aurrekontua 781.000 eurokoa izan da eta Ur Partzuergoak eta Aldundiak ordaindu dute %50era.

## KOLEKTOREKO LANAK BUKATUTA

Bergarako ur zikinak batuko dituen kolektorea jartzeko lanak ere bukatu dituzte. Kolektore sare osoak 13.230 metroko luzera du eta guztira 17.774.000 euroko aurrekontua (Aldundiak eta Ur Partzuergoak erdibana ordaindu dituzte).

Lanok hiru fasetan egin dituzte: lehenengo fasean Mekolalde-San Lorenzo industrialdea tartea eta Osintxuko adarra egin zuten; bigarrenean, San Lorenzo industrialdea-Bideberri tartea eta San Juango adarra egin zuten eta hirugarrenean, Bideberri-Ibarra tartea egin dute.



1.000 m<sup>3</sup>-ko mur biltegia egin dute trenbide zaharraren ondoan.





# *Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatuz**.s.l.

Zubillaga auzoa 1  
**OÑATI**

Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51



JAIK | EGUENEAN HASI ETA DOMEKARA ARTE IRAUN ZUEN FESTAK ANTZUOLAN

# Herritarren partaidetzak garrantzi handia izan du jaietan

*Jai parte-hartzaileagoak izatea zen Jai batzordearen helburuetako bat eta hori nabaritu egin da asteburuan izan dituzten ekitaldietan*

Goreti Elortza

Atzo gauean eman zieten amaiera jaietako Antzuolako herritarrek. Eguenean hasi eta domekara arte iraun du festak eta jende ugari hurbildu da herrira egun hauetan, zapatuan batez ere.

Aurten, jaietako egitaraua antolatzeke orduan herritarren parte-hartzeari eskaini diote arreta berezia Jai batzordekoek, Juan Luis kultura teknikariak adierazi zuen moduan: "Kaleko giroa jaisten ari da herri askotan. Horregatik, eta jaiak herritarra bihurtu nahian, herriko kultura talde desberdinei eman diegu parte hartzeko aukera. Herriko dantzariak, abesbatzak, herriko musika taldeek... jardun dute jaietan. Finean, ikusle gisa baino parte-hartzaile gisa joka dezaten herritarrek nahi izan dugu", adierazi zuen Jai batzordeko kideak. "Jaietako lehenengo egunean herriko bi musika taldek egindako kontzertuak arrakasta izan zuten, eta hontzaren jaitsieran, txalaparta eta hontzak botatuko sua zela eta oso giro polita sortu zen herriko plazan. Horrelako eki-

taldiek batzen dute herria", aitortu zuen Juan Luisek.

Herritar talde bati galdetuta, jaietako egitarauaren denetik egon dela esan digu, ume, gazte zein helduagoentzako ekitaldiak. "Gainera, hontzaren jaitsiera, herriko taldeen kontzertuak eta horrelako ekitaldiak... herritarra bihurtu dituzte jaiak", esan ziguten koadrilako lagunek. Helburua bete dutela esan daiteke, beraz, Jai batzordekoek.

## JAIETAN POSTU BETERANOA

Antzuolako jaietara urtero etortzen diren Leitzako ama-alaba batzuekin egon ginen, Katti eta Ainararekin, hain justu. 11 urte daramatzate jaietara etortzen eta jarraitzeko asmoa agertu zuten gainera. "Jende asko ezagutzen dugu, polita da urtetik urtera herritarren zein herriaren eboluzioa ikustea. Jendeari ere ilusioa egiten dio gu ikusteak. Oso gustura etortzen gara urtero, jende polita da hemengo eta harreko oso ona dugu", zioten saltzaileek. Eskumuturrekoak, euren diseinatutako kolore biziko jantziak eta beste hainbat pitxi saltzen dituzte euren postuan.



Herri sagardotegia egin zuten atzo arratsaldean, kupel, jaki, bertso, musika, lehiaketa eta txarangarekin.

## JAIETAKO AZKEN EGUNA

Jaietako azken eguna atzo izan zen, domeka, eta ekitaldi ugari egon ziren herrian.


Urtero gonbidatzen dute antzuolarrek jaietan Lizarra inguruko jendea. Izan ere, Alfonso Ugarte Antzuolan jaietako

**Lizarrako produktuak eta hango dantzari eta gaitariak ikusgai**

musikariak Lizarran eman zituen 35 urte. Eta musikari trebe hori goraiatzeko Lizarrako dantza taldea eta gaitariak izan ziren domekan, eta produktuen erakusketa ere egin zuten.

Jaietako amaiera emateko, herri sagardotegia izeneko herri jai

## • EGUENETIK DOMEKARA HAINBAT EKITALDI IZAN DIRA HERRIAN



**HONTZAREN JAITSIERA.** Eguenean egin zuten antzuolarrek hontzaren jaitsiera, gauerdian. Orain dela hamabost urte inguru egin zen lehenengo aldiz herriko koadrila baten ekimenez eta aurten berreskuratu egin nahi izan dute. Oso harrera ona izan zuen herriaren aldetik.



**ORO DE MEXICO.** Mexikoko Puebla herriko taldea dugu hau. 10 lagunez osatutako taldeak Mexikoko abesti eta musika tradizionalak eskaini zituen egubakoitz arratsaldeko kalejiran. Gauean ere emanaldia egin zuten plazan eta jendea gustura ibili zen euren doinuak dantzatzu.



**UMEENTZAKO TAILERRAK.** Zapatuan 11:30etik 13:30era umeentzako eskulan tailerrak jarri zituzten herriko plazan Txatxilipurdi taldeko kideek. Arrozez betetako pilotekin kariokak egiten, aurpegiak margotzen eta pintzelek margotzen ederki pasa zuten gaztetxoekin.



ANTZUOLAKO JAIK 2006



JOSETXO ARANTZABAL

ere antolatu zuten antzuolarrek iluntze alderako. Jakiak, kupe-lak, bertsoak, kantuak, lehiaketak, txiste kontalariak... Denetik egon zen atzokoan. Bertan jasotako irabaziak, Anelkar elkarteak 3.munduan dituen proiektuetara bideratuko dira.

**Herriko kaleak sagardotegi bihurtu zituzten jaien azken egunean**

Sagardotegiko erromeriarekin jarraituz, Larrain-dantza egin zuten herritarrek herriko plazan eta Kupela taldeak jardun zuen ondoren leku berean. Gauerdian aurtengo festei amaiera iritsi zitzaizen azken suzirien jaurtiketarekin.

• JAIEN GAINEAN BERBETAN



NEREA ETA JULEN | BERGARA

**"Primeran pasatzen dugu Antzuolan, kontzertuaren ondoren bertan gelditzen gara-eta"**

Nerea eta Julen Bergarako Musika Bandako kideak aurkitu genituen zapatu arratsaldean Antzuolan. "Eguerdian kontzertua izan dugu eta gero Lekuberrri jatetxera joan gara bazkaltzera, urtero bezala. Oso ondo ematen digute jaten", esan ziguten bi lagunak. "Bihar ere kontzertua dugu Bergaran; beraz, formal ibili beharko dugu..."



MAITE ARANTZABAL | BERGARA

**"Jaietara etortzen naizen lehen aldia da aurtengoa"**

13 urteko neska hau lehen aldiz etorri da Antzuolako jaietara. "Gauetan ere geldituko naiz, kontzertuak ikusiko ditugu txosnetan". Mairuaren Alardea polita iruditu zitzaion Maiteri.



MUTIL KOADRILA | ANTZUOLA

**"Zezensuzkoa eta barrakak gustatzen zaizkigu gehien, baina gaueko kontzertuetara joatea ere gustuko dugu"**

Herriko plazan aurkitu genituen mutil hauek eta jaien inguruan galdetu genien. "Oso ondo doaz jaiak. Goizean eskulanak egiten aritu gara plazan. Zezensuzkoa eta barrakak gustatzen zaizkigu gehien", esan ziguten gaztetxoek. Gauetan ere iriteten dira eta batzuek eurei ordurik jartzen ez dietela esan zuten. "Pena ematen digu jaiak bukatzeak, baina oporretan gaudenez, ez da horren gogorra izango", adierazi zuten antzuolarrek.



**BERGARAKO UDAL BANDA.** Aspalditik jotzen du jaietan Bergarako musika bandak eta aipamen berezia egin zieten zapatuan. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak alardearen konposizio berriaren partiturak eman zizkion alkateari eta hark herriko bandera eman zion.



**ALARDEAN BERRITASUNAK.** Aurten, alardearen hasieran, ekitaldiaren xehetasunak kontatzen dituen grabazioa jarri zuten. Hori egiten den lehen aldia da. Bestalde, Udalak eskopeta berriak erosi ditu aurten (herritarrei eskatzen zieten lehen) eta kanoiak konpondu egin dituzte.



**PRESOEN ALDE.** Presoen aldeko ekitaldia egin zuten zapatuan, 20:00etan, Zurrategin. Presoen senideak omen du zituzten eta euren egoera salatu zuten, beste behin. Ondoren, txorizoa eta sagardoa eskaini zieten han batutakoei. Segidan, trikipoteoari hasiera eman zioten Zurrategitik.



## Karmelo Zubillaga omendu zuten senide eta lagunek

Goreti Elortza

Atzo eguerdian egin zioten omenaldia Karmelo Zubillaga zenari Besaideko zelaietan, monumentuaren ondoan. Karmeloren lagun eta senideek antolatutako omenaldia izan zen atzokoa eta bere bizitzan zehar egindako lan handia goraiatu nahi izan zuten han batutako 200 bat lagunek. Eta horrela egin zuten ekitaldi hunkigarrian.

11:00etan Arrasateko Arbolapetan zen hitzordua. Han, hainbat herritar elkartu ziren eta autoak hartuta Besaidera abiatu ziren. Gehienak, ordea, oinez joan ziren.

### OMENALDI HUNKIGARRIA

12:00ak inguruan hasi zen omenaldia. Besaideko monumentuaren ondoan batu zen jendea. Karmeloren senideei aureskua dantzatu zieten lehenengo. Segidan, Xabier Zubizarreta alkate ohiak egin zuen berba. Zubizarretak Karmelo ezker abertzaleko militante ohiari buruz hitz batzuk esan zituen eta Euskal Herriaren aldeko borrokan egindako lan handia goraiatu zuen. Baita haren laguntzeko prestutasuna ere. Ondoren, bertso batzuk kantatu zituzten guztiok batera eta baita *Lepoan hartu ta segi aurrera* doinuarekin lagunari eskainitako abestia ere.



Karmelo Zubillaga arrasatearra omendu zuten Besaiden atzo.

Segidan, errautsak bota zituzten Besaideko zelaietan senide eta lagunek eta amaitezko, *Eusko gudariak* abestu zuten.

Horrela, merezitako omenaldia egin zioten Karmelo Zubillaga apirilean zendu zen arrasatear matuari, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia batzen dituen monumentuan.

## Foruak galdu zirela 130 urte bete direla gogoratuko dute

*Bergarako udaletxean egingo dute ekitaldia, egubakoitzean. Horrekin batera, 'Alkateak borrokan' liburua aurkeztuko dute*

Eneko Azkarate

Datorren egubakoitzean, uztailaren 21ean, betetzen dira 130 urte Euskal lurralde historikoek foruak galdu zituztela. Hori gogora ekartzeko, orain dela 30 urte Bergarako alkateen taldean jardundakoak elkartuko dira. Bergarako udaletxean izango da hori, goizeko 11etan.

Elkartuko dira besteak beste, Jose Luis Elkoro, orduko Bergarako alkate zena; Imanol Murua, Zarautzeko alkate zena; Jose Antonio Altuna *Txatillo*, Arrasateko alkate zena; Jabier Errasti, Eskoriatzako alkate zena; eta orduko Bergarako udalbatza osatzen zutenak ere gonbidatuta daude. Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea ere egongo da han. Ekitaldia publikoa izango da, herri guztia-rendako.

### LIBURUA ERE AURKEZTUKO DUTE

Bide batez, aurkeztuko dute liburu bat, trantsizio garaian Bergarako alkateen mugimendua osatu zutenen gainekoa. Liburuaren izenburua da: *Alkateak borrokan. Bergarako taldea trantsizioan. (1975-1979)*. Txema Urrutia Herri Irratiko kazetaria izandakoak idatzitakoa da eta kaleratu berri du Txalaparta argitaletxeak.

**Duela 30 urte Bergarako alkateen taldean jardundakoak batuko dira**

Ikurrinaren legeztatzea ospatzeko (1977ko urtarrila) edota Foruak galdu zirela gogora ekartzeko hainbat lan egin zuen trantsizio garaian Bergarako alkateen taldeak. Foruak galdu zirela 100 urte bete zirenean, 1976ko uztailaren 21ean, Bergara milaka eta milaka euskaldunen topaleku bihurtu zen.

### BERGARAKO ALKATEEN TALDEA

Euskal lurraldeen eskubide historikoak aldarrikatu zituzten Bergaran egin zen ekitaldi jendetsu hartan. Baina zergatik egin zuten Bergaran? Bada, trantsizio denboran, 1975-1979, erakunde demokratikoak oraindik ezarri barik zeudela, Debagoieneko hainbat udalek eta alkatek, eta baita inguruko beste batzuk ere (Zarautz, Azkoitia...) oso paper garrantzitsua jokatu zutelako.

Ezaguna egin zen Bergarako alkateen taldea, Jose Luis Elkoro Bergarako alkatea buru zuena.

## Etxeko olio batzeko lehen edukiontzia laster egongo da amaituta

*Arrasaten jarriko dute lehenengo. Han frogatu eta gero erakundeetara aurkeztuko dute aurrerantzean sistema finkatzeko*

U.M.

Etxean erabilitako olio batzeko poteak hartuko dituen lehen edukiontzia, -kalean jartzeko edukiontzia- amaitzen dabil Garaia Berrikuntza Gunean. Goi Eskola Politeknikoko ikasleek dihardute prototipoa egiten eta laster egingo dituzte lehen frogak. Hala, Arrasateko Udalak espero du urrian edo azaroan Arrasateko kaleetan halako 7 edo 8 ontzi handi egongo direla.

Bizpahiru urte eman dituzte Goi Eskola Politeknikoko promozio ezberdinetako ikasleek proiektua garatzen eta hobekuntzak eta egokitzapenak egiten. Dagoeneko, bukatzen ari dira frogak egiteko lehenengo edukiontzia.

### ONTZI TXIKIAK BOTAKO DIRA EDUKIONTZIRA

Etxean erabilitako olio edukiontzia berrirotara botatzeko, horretarako propio diseinatuak ontzi txiki batzuk erabili beharko dira; horiek baino ez dira sartuko edukiontzian. Hori horrela, halako zortzi mila ontzi banatuko dituzte Arrasateko etxeetan. Bestalde, edukiontzietan ere beste 200 bat pote txo jarriko dituzte. Modu horretan nahi dutena da hiritarrek edukiontzira erabilitako olio eramaten dutenean, etxera pote txo garbia eramateko aukera izatea. Bestalde, olioaren birziklatzea kudeatuko duen enpresak 2 mila izango ditu, banatzeko.

### INGURUKO HERRIETARA ZABALTZEKO ASMOA

Inguruko herrietan ere banatu nahi ditu Arrasateko Udalak ontzi txikiok. Izan ere, bere asmoa da halako edukiontzia Eroskin jartzea.

Arrasaten egingo da, hortaz, etxean erabilitako olio batzeko lehenengo froga sistema horrekin. Ondoren erakundeetan aurkeztuko dituzte emaitzak, aurrerantzean sistema finkatzeko. Gainera, orain arte proiektua aurkeztu duten toki eta erakundeetan oso harrera ona izan du.

### JAURLARITZAK ETA ALDUNDIAK LAGUNDUTA

Proiektua aurrera ateratzeko Eusko jaurlaritzak laguntza eman zion Udalari iaz eta Diputazioak ere laguntza eman dio 2005-2006 urteetarako. Madrilen ere eskatuta du Udalak diru laguntza, baina horren arantzen ez du oraindik jaso.



Olio puntu mugikorrean batzen.

## Josu Zabala izendatu dute Mondragon Unibertsitateko errektore

M.B.

MUko Kontseilu Errektoreak errektore izendatu du Josu Zabala azkoitiarra. Faktore erabakigarriak izan dira izendapenerako Zabalak kooperatiben munduaren gainean, ikerketa arloan eta Mondragon Unibertsitateko oinarriko bi ezagutza arlotan -teknologien eta enpresen kudeaketa- duen ezagutza sakona. Azken urteetan Fagor Etxetresna Elektriakoetan ziharduen, Negozio gerente moduan.


Inaxio Oliveriren lekua beteko du Josu Zabalak, izan ere, Oli-



ASTELEHENKO GOIENKARIA

veri erretiratu egingo da otsailen. Zabalak azaroan hartuko du kargua. Hala, azarotik otsailera bitartean elkarrekin arituko dira sartuko den errektorea eta irtengo dena.





## UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



**SENEGAL 2005.** Edertasunak ez du adinik ez leku berezirik ez aberastasunik behar. Neskatila, ur bila joateko ontzia besapean. /Argazkia: Gerardo Markuleta /Oñati



**KOLOREEN BIZITASUNA.** Tenerifeko Lore Parkeko arrainen kolorea benetan da bizia. Ehunka arrain daude. Batzen direnean ortzadarra osatzen dutela dirudi. /Argazkia: Aratz Losada /Oñati



**OPORTO HIRIAREN XARMA.** Antzina, Duero ibaian barrena mahatsa Oporto hirira eramateko erabiltzen zituzten irudikoa bezalako itsasontziak. /Argazkia: Elvira Quintana /Oñati



**TXALUPAKO SALTZAILEA.** Mexikon egin zuten goiko argazkia, Chochimilko auzoan. Egilearen arreta piztu zuen txalupa gainean dagoen saltzaileak. /Argazkia: Juan Manuel Lasa/ Antzuola

### Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.

- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapen txiki bat.
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 2ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

### Sariak:

- 1. saria:** Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela. Barceló Bidaiek agentziaren eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



### Babeslea:

 **kutxa**

### Laguntzaileak:



**GURE AMETSA**  
JATETXEA



## Urrira arte izango dira Saharako haurrak ibarrean


*Aurten Saharako kanpamenduetatik hogeita hiru neska-mutiko etorri dira, ibarreko familiekin oporrak bakean eta giro osasungarrian pasatzera*

Jon Berezibar

Eguenean egin zieten ongietorria, Arrasaten eta Bergaran, gurean oporrak pasatzera etorri diren hogeita hiru neska-mutiko sahararrei. *Oporrak bakean* ekimenaren barruan ekarri dituzte Arrasateko Nubik eta Bergarako Bubisher elkarteak, bertako familiekin udako oporrak bakean eta modu osasuntsuan igaro ahal izateko. Oñatin ere badago haur saharar bat eta Aretxabaletan beste bat. Aurrez hemen egondakoak dira etorritako asko; Arrasaten dagoen haur baten bosgarren urtean da, kasu. Harre-  
ra ofiziala eguenean egin zieten Arrasateko eta Bergarako alkateek, eta bi hilabete egingo dituzte ibarrean.

### TXERNOBILDIK ERE BAI

Atzerriko beste leku batzuetatik ere hainbat haur ekarri dituzte ibarrera. Oñatiko Banoia Txernobil elkarteak hango neska-mutikoak ekarri ditu. Sei ume etorri dira aurten Ukrainatik, bost Oñatira, beste bat Bergarara eta Aretxabaletara beste bat, hura aurrez ere hemen izandakoa, hain zuzen.



Bergaran zazpi neska-mutiko egongo dira.

BUBISHER ELKARTEA



Arrasaten batek baino gehiagok egonaldia errepikatu du.

JON BEREZIBAR

## Arrasateko Udalak hitzarmena sinatu du Trafiko Zuzendaritzarekin

*Hitzarmenaren bitartez ibilgailuen gaineko datuak momentuan jakin ahal izango dituzte, eta lana eta denbora aurreratu*

U.M.

Arrasateko Udalak lankidetz hitzarmena sinatu du Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin. Hitzarmenak abantaila handiak ekarriko dizkio Udalari, bi eremutan. Izan ere, hitzarmenaren bitartez, Udala internetez sartuko da Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datu basean, hala, Arrasaten behar diren ibilgailuen datuak momentuan bertan eskuratzeko.

### DATUAK MOMENTUAN

Udaleko Ogasun teknikariek azaldu dutenez, gertatzen da hiritarrak joaten direla udaltxera esanez dagoeneko euren ez den auto baten zerga kobratu dietela. Kontua da, orain arte Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin harremanetan jartzeko izan duten aukeria bakarra izan dela postaren bitartez. Hortaz, hiritarrak zioena egiaztatzeko eta okerra zuzentzeko gutxienez astebete itxaron behar zen.

Lankidetz hitzarmenarekin, berriz, Udala hiritarrak eskaera egiten duen unean bertan sartuko da Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datu base-

an, internetez. Horrek ekarriko du okerra unean bertan kontontzeko aukera.

Udaltzaingoan ere abantaila handia izango dute hemendik aurrera. Esate baterako, isunak jartzeko orduan arazak izaten zituzten udaltzainek autoa Arrasatekoa ez bazen, norena ote zen ezin zutelako jakin. Posta bidez jasotzen zituzten datuok, astebete geroago.

Orain berriz, autoren bat gaizki aparkatuta badago edo arazorik sortzen badu, Udaltzaingoak ere aukera izango du Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datu basean sartu eta datuok momentuan eskuratzeko. Udaltzaingoak, bestalde, konpromisoa hartuko du, jartzen dituen isunak ere Trafikora jakinarazteko.

Udalak Trafikoren datu basean sartzeko aukera izango du beti, baina baldintza batzuen barruan. Hau da, kontrol zorrotza egongo da, datu base horretako datuok edozein modutan ez erabiltzeko.

**Momentuan erantzun ahal izango diete herritarren eskariei**

**Orain arte astebeteko epea behar izaten zuten Trafikorekiko harremanetan**

### • FAGOR INDUSTRIALEK ZENTRO LOGISTIKO BERRIA IREKI DU OÑATIN

#### BARIKUKO INAUGURAZIO EKITALDIAN ISO-14001 ZIURTAGIRIA JASO ZUEN

Fagor Industrialek 8.000 metro koadroko zentro logistikoa inauguratu zuen barikuan Oñatiko Migelena auzoan. Pabiloi berriak hartuko du egosketa, labe eta baxera garbiketa gametako bukatutako produktua. Hala, urtean bukatutako 70.000 makinaren banaketa kudeatuko du. Jose Luis Lizarbe Fagor Industrialeko zuzendari orokorrak azpimarratu zuen "Fagor Industrial Oñatin finkatzeko beste urrats bat" dela zentro berria "herrian lanpostu berriak" sortzeaz gain. Jesus Catania MCCko presidentea eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea ere izan ziren ekitaldian.

Bestalde, Fagor Industrialek ISO-14001 ziurtagiria ere jaso zuen barikuan AENOREko zuzendariorde orokor Avelino Britoren eskutik.



JULEN IRIONDO

### • NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO ESKUBIDEEN ALDE



JON BEREZIBAR

#### TUTERAKO EROSKIKO LANGILEEN BERRI

Tuterako Eroskiko 55 langileen egoeraren berri emateko eskuorriak banatu zituzten eguenean ELAkoek Arrasateko Eroskin; Unai Martinez idazkari nagusia ere han zen. Bihartik astebeteko greba deitu dute Tuterako langileek, Eroskik "Madrilen sinatutako hitzarmena inposatzeagatik". Sindikatuaren esanetan, hitzarmen berriak ordu gehiago eskatzen zaizkio langileari eta "galera sozialak oso garrantzitsuak dira". Arrasate protestarako gune aukeratu zuten, kooperatibismoaren muin izateagatik.



## Albiste izango da

BERGARA | UDALAK BI AKATS ZUZENDU NAHI DITU

### Etxeetara banatuko dute kirolgune berriaren gaineko informazioa

Eguenean hasi eta aste honetan barrena Agorrosin kirolgune berriaren gaineko informazio orriak banatu dituzte etxeetan. Horren haritik, informazio orriok bi akats dituztela jakinarazi dute Udaletik: batetik, kirol txartela irailaren 16a baino lehenago atera dutenen familiaren tasa 21,4 euro dela dio, baina hori ez da zuzena; benetako kopurua 64,20 euro da.

Bestetik, txartel moten barruan, lehenengo aukeran, *18 urte-tik beharagoak, langabeak eta ikasleak* dioen lekuan, *elbarriak* eranstea falta da.

DEBAGOIENA | ABUZTUAN EZ DA ZERBITZURIK EGONGO

### Bihar batuko dute baserri ingurunean sortutako plastikoa

Bihar, martitzena, batuko dute baserri ingurunean sortutako plastikoa. Plastikoa arratsaldean atera behar da eta ohiko lekuetan lagako da. Bilketa gunea aldatu nahi izanez gero deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira. Batuko duten plastiko mota da: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortutan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta negutegiko plastiko zuria. Plastikozko sokak, berriz, ez dituzte batuko.

Abuztuko hilabeteari dagokionez ez da plastikoa batzeko zerbitzurik egongo. Hala, hurrengo batze eguna izango da irailaren 26a.

ESKORIATZA | 10 ORTU GEHIAGO EGINGO DITUZTE

### Torrebasoko ortu berrietan izena emateko epea zabaldu du Udalak

Hasi dira Torrebasoan ortu gehiago egiten. Urte hasieran hartu zuen Udalak ortu gehiago egiteko erabakia eta Frixi Eraikuntzak dabil zeregin horretan. Hala, Udalaren asmoa da aste gutxitan bukatuta egotea. Beste hamar ortu egingo dituzte eta aurrekontua 30.000 eurokoa da. Udalaren asmoa da udara ostean herriko etxe guztietako atarrietan ortuen berri emateko horma-irudiak jartzea. Hala ere, Juan Luis Merino zinegotziak esan du dagoeneko badagoela izena emateko aukera. Horretarako udaletxeko harrerara jo behar da eta eskaera egin. Eskatzaileen artean zozketa egingo dute gero. Onuradun izateko baldintzak dira erretiratuta egotea edo 55 urte-tik gorako aurre-erretiratua izatea, Eskoriatzan erroldatuta egotea eta orturik ez izatea.

ELGETA | ARRATOIEN AURKAKO KANPAINA

### Arratoiaren aurkako pozoia ipiniko dute gaur ohiko kokapenetan

Gaur abiaraziko du Elgetako Udalak arratoiaren kontrako kanpaina berria. Herriko ohiko puntuetan ipiniko du Udalak pozoia. Horretaz gain, hilabete osoan zehar jarraipena egingo du ia neurrikeragin baduten jakiteko.

Abuztuan eta irailean ere ipiniko dute pozoia betiko lekuetan. Hala, abuztuaren 16 izango da hurrengo eguna eta irailean 11n izango da. Herriarrek beharra izanez gero, Udalak kasu zehatzetan ere pozoia ipintzeko zerbitzua dauka. Behar izanez gero udaletxera jo besterik ez dago.

OÑATI | TENISA, AQUAGYMA, BADMINTONA, WATERPOLOA...

### Abuztuko ikastaroetan izena emateko epea bihar amaituko da

Oñatiko kiroldegiko 2005-2006 ikasturteko ikastaroetan izena emateko azken eguna hilaren 20a izango da, datorren egubakoitzan. Aurten honako hauek izango dira udal kiroldegian antolatutako ikastaroak: soinketa, fit bike, aquagyma, soinketa terapeutikoa, aerobika eta just pump delakoa. Izena emateko orria kiroldegian bertan utzi behar da ikastaroetan parte hartu ahal izateko. Bestalde, Uda Kanpaina parte hartzeko izenemateko epea bihar amaituko da. Abuztuko ikastaroak dira horiek eta mini-tenis, tenis, badminton, waterpolo, igeriketa, aquagym eta piraguismo ikastaroak izango dira.

## Hitzorduak



### GAZTEENDAKO IRAGARKIAK IPINTZEKO AUKERA DAGO ORAIN BERGARAN | Gazte Informazio Zerbitzuak leku berezi bat egokitu du kultur etxean

Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuan, gazteendako iragarkiak jar daitezke hemendik aurrera. Kultura etxeko sarrerako paneletan horretarako egokitu dute propio leku bat, eta fitxa more batzuk ipini dituzte iragarkiak idazteko. Gai askoren gaineko iragarkiak ipin daitezke: ostatua eman edo

bilatzeko, lana eman edo eskatzeko, trukeak egiteko, erosteko, saltzeko, lagunak egiteko, eta beste askotarikoak.

Iragarkiok Internet bidez bidaltzeko aukera ere badago. Horretarako, [www.zureiragarkiak.net](http://www.zureiragarkiak.net) webgunera jo beharra dago.

#### ANTZUOLA |

• **Hezkuntza musikala ikasketak emango dituzte**  
Hezkuntza musikala, ahots teknika eta koraleko eskolak emango dituzte datorren ikasturtean. Izena emateko dei egiten dute, lehenbailehen taldea osatzeko.

#### ARETXABALETA |

• **Odol-ateratzeak egingo dituzte gaur, astelehena**  
Odola emateko aukera dago gaur, astelehena, osasun zentroan, 16:15-20:00 orduetartean. Arabako Odol Emailek antolatzen dute.

• **Beinke-Loramendi dantza ikastaroa emango dute**  
Loramendi euskara elkarteak Beinke-Loramendi dantza ikasteko saioa antolatu du, San Migel jailetan dantza egiteko. Hilaren 20an, eguna, batuko dira udaletxe zaharrean, 19:45ean.

#### ARRASATE |

• **Bi Internet ikastaro emango dituzte astelehenean**  
Honako ikastaroak emango dituzte gaur, astelehena: egunkaria irakurtzekoa (09:00) eta postal bat bidaltzekoa (10:00).  
• **Odol-ateratzeak egingo dituzte bi egunetan**  
Odola emateko aukera dago hilaren 18an eta 19an osasun zentroan, 16:30etik 20:00etara.

• **Gazte informazio guneko zerbitzua, lehiaketara**  
Gazteendako informazio guneko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa deitu du udalak. Argibideak, kultura etxean (943 77 91 60).  
• **Bat-bateko mezularitzaren gaineko ikastaroa**  
Bat-bateko mezularitzaren gaineko ikastaroa emango dute hilaren 11n eta 12an KZgunean, 18:00etatik 20:00etara. Euskaraz izango da.

#### BERGARA |

• **Gazta-dastatze ikastaroan izena eman daiteke**  
Gazta-dastatze ikastaroa hasiko da irailaren 7an, eta izenemate epea irailaren 5era arte izango da zabalik. Argibideak, kultura etxean (943 77 91 59 da telefonoa).  
• **UNEDeko ikasketen gaineko informazioa eta orientazioa**  
UNED ikastetxeak unibertsitate ikasketak aukeratzeko informazioa eta orientazioa eskaintzen du. Datorren ikasturtean eskaintzen dituen ikasketen gaineko edukiak azalduko ditu, eta aholkuak ere emango ditu.  
• **Irudi digitalak tratatzen ikasteko jardunaldiak**  
Irudi digitalak tratatzeko ikastaroa emango dute hilaren 18an eta 19an, 09:00-11:00 orduetartean, KZgunean.

#### DEBAGOIENA |

• **Baserrian erabilitako plastikoa jasoko dituzte**  
Baratzean, siloan, negutegian... erabilitako plastikoa jasoko ditu Deba Garaiak, Landa Garapenerako elkarteak, bihar, martitzena. Ohiko lekuetatik pasatuko dira. Argibideak eskatzeko, deitu 943 76 25 47 telefonora.

#### ELGETA |

• **Autobus ordutegia berezia izango da uztailaren**  
Elgeta-Bergara autobus zerbitzuak ordutegi desberdina izango du hil honetan. Elgetatik Bergarara autobusa 07:40, 11:45 eta 13:30ean irtengo da, eta Bergaratik Elgetara 11:30 eta 13:15ean etorriko da. Abuztuan ez da autobusik egongo.  
• **Posta elektronikoen gaineko ikastaroa**  
Posta elektronikoa erabiltzen irakatsiko dute hilaren 19an, eguaztana, KZgunean, 10:00-12:00.

#### OÑATI |

• **Administrazioarekin lan egiteko txartela**  
Izenpeko Herritarren Txartela lor daiteke KZgunean. Internet bidez administrazioekin lan egiteko eta hainbat dokumentu lortzeko aukera ematen du. Argibideak, 943 71 83 20 telefono zenbakian.



# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Bergarako erdiguneko kaleen egoera "tamalgarria"

Bergarako erdiguneko espaloi eta baldosen egoera "tamalgarria" da kexu irakurle bat. "Zuloz eta koskaz beteta daude espaloiak", dio irakurleak, "eta kontuz ez ibiliz gero jausi egin" zaitezkeela dio; hari behin gertatu bezala, jakinarazi duenez. Batez ere Barrenkalea eta Irala kaleak ipintzen ditu adibide moduan, "kale jendetsuak direlako eta batek baino gehiagok min hartu duelako dagoeneko".

"Hori gutxi balitz", zera gehitu du: "Eurria egiten duenean, baldosak kili-kolo daude eta zapalduz gero, busti egiten zara", dio, amorratuta, kexa helarazi digun irakurleak. Behingoz neurriak har daitezkeen eskatzen du ohar honekin.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**

## Sarean harrapatuta

### Erosten duzu prezio baxuko hegaldirik?

Geroz eta konpainia gehiagok eskaintzen dituzte orain prezio baxuko hegaldiak. Iberia ere laster hasiko da eskaintzen, eta langileak kezkatuta daude lanpostuak galduko ote dituzten; greba ere egin dute

euren kexa azaltzeko. Orain uda gertu dagoela-eta, horren gaineko galdera egin dute *Goiena.net* webgunean: Bidaiatzen duzu prezio baxuko hegaldietan? Zer iruditzen zaizkizu? Hemen erantzunak.

### EZIN DA LASAI IBILI HEGALDI MERKEETAN

Hasteko, oso gaizki iruditzen zait hegazkin konpainia handiek daramaten jokoa, eta hor dugu Iberiako pilotuen grebaren adibidea: beren postuaz baliatzen dira urte osoan behin bidaiatzen duen jendearekin xantaia egiteko. Aski da! Horri begira, beharbada prezio baxuko enpresak alternatiba bat dira.

Hala ere, ni ez naiz asko fidatzen. Hemengo enpresak seguruenik hobeak izango dira herrialde pobreetakoak baino, baina hala ere... Hain hegaldi merkeak eskaintzeko, beste nonbaitetik kendu beharko dute dirua, ezta? Eta nondik? hmmm... Ez, ni ez nintzateke lasai ibiliko.

Oinezko / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### KOSTU BAXUKOEN PLUSIK EZ DUTE

Nik orain arte kostu baxuko hegaldiak hartu ditut: Ryanair, Easyjet eta antzerako konpainiekin bidaiatu dut. Momentuz, bidaia guztiak primeran atera zaizkit, ezin naiz kexatu. Dena den, bati baino gehiagori entzun diot over-bookinga edota maletak galdu eta hondatzeko aukerak handiagoak direla. Dena dela, Iberiarekin ere maletak hondatzen dira eta galdu ere galdu izan

dira. Hegaldi merke horiei plusak kentzen dizkiete. Hau da, ez dute jaten ematen eta maletak fakturatzeko orduan ere desberdina da. Gainera, jarritako pisua gaintuz gero, kiloko zortzi bat euro ordaindu behar da. Gehiegizkoa da prezioa.

Miren / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### HEGAZKIN BERRIAK DITUZTE MERKEEK

Nik erabili izan ditut kostu baxuko hegaldiak, batez ere Ryanair, baina baita Easyjet ere. Abuztu

honetan ere Transavia eta Easyjetekin bidaiatu behar dut. Orain arte ez dut eduki inongo arazorik, maletak beti heldu izan zaizkit baldintza onean eta, batez ere, ez dut eduki inongo atzerapenik. Horrez gain, nire ustez orain momentuan seguruenak dira, behintzat Ryanair eta Easyjet, hegazkin berri-berriak dituzte-eta. Ikusi egin beharko dugu 10-15 urte barru zer gertatzen den.

Iberiak atera behar duenaren gainean, justu kontrakoa gertatzen da: Iberian hegazkin zaharrenak erabili behar dituzte. Ikusteko dago zelan dabilzan...

Aitzol / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## www.goiena.net

Zuk bidaiatzen duzu  
prezio baxuko  
hegaldietan?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo  
[www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

### BIAK PROBATU DITUT ETA MERKEA ONENA

Prezio altuko eta baxuko hegaldiekin bidaiatu dut. Momentuz zorte ona izan dut. Izan ere, inoiz ez didate maletarik puskatu edota galdu. Gainera hegaldi guztiak garaiz irten dira, inolako atzerapenik izan gabe. Beraz, hegaldi bat aukeratzeko prezio baxukoarekin geratzen naiz, konfiantza eman baitit orain arteko bidaietan. Bestalde ulertzen dut norbaitek arazo bat izan eta haserre egotea, baina over-bookingak eta hegaldien atzerapenak konpainia guztiak gertatzeko arriskua dago.

Bidaiaria / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Halaxe erantzun digute

Seme-alaben oporraldi luzeak buruhaustea dira gurasoendako lan ordutegiarekin uztartu ahal izateko



**UXUE ZABALETA** |  
TXATXILIPURDI ELKARTEA

Planifikazio kontua da, aurreikusita dago-eta. Badaude udalekuak, zaintzaileak... Lan mundua eta gizartea aldatzen doan heinean, hala ere, bestelako erantzunak ere ikusi beharko dira, gurasoen oporraldia ere aldatzen doalako. Horietako bat ludotekak abuztuan ere irekitzea litzateke.



**AMAIA VICENTE** |  
HAURTXXOA HAURTZAINDEGIA

Ez du zertan arazoa izan, hurrek hainbat jarduera dituzte-eta udan egiteko; badago igerilekura joatea, baina bestela ere ingeleseko eskolak edo aisialdirako aukerak daude. Alde horretatik ondo konpon daitezke gurasoak. Haurtzaindegietan udan zabalik dauzka gelak, hala ere.



**EDORTA ARANA** |  
GUREL, GURASO ELK., GATZAGA

Neurri baten izan daiteke, familia ereduak aldatzen doazen heinean, eta gurasoak lanean daudenean kosta egiten da umeen oporraldia eta gurasoen lan ordutegiak bateratzea. Zerbitzu onak behar dira, udalekuak bezala. Gatzagan bi asterako, behintzat, antolatzen ditugu.



**MAIDER ETXANIZ** |  
GAZTERIA TEKN. ESKORIATZA

Udal zerbitzuetatik gurasoen arazo baino haurrentzako ondo pasatzeko eta aisialdirako aukera moduan planteatzen ditugu, udalekuak, adibidez. Urte guztian ludoketa eta bestelako jarduera didaktikoak daude, eta udan kanpoan gozatzeko aukera moduan ikusten ditugu udalekuak.





## Egunkarietako harribitziak

### 1936KO UZTAILAREN 18A

Bihar, uztaileak 18, betekoa da Hego Euskal Herriaren historia markatu zuen gertakizunaren 70. urtemuga. Mola jeneralak Iruñetik zuzendu zuen estatu-kolpeak gerra piztu zuen Estatuan. Euskaldunek elkarren artean egin zuten borroka eta milaka hildako egon ziren. *Zazpika* gehigarriak lehen borroka ekarri zituen atzo gogora.

'Zazpika'  
2006-07-16




### FOBIA ORTZADARRARI

Europar Batasunean sartu ahal izateko, euren lege eta araudiak egokitu behar izan dituzte ekialdeko herrialdeek, harreman homosexualak debekatu eta hainbatetan zigortzen zituzten araudiak indarrrik gabe lagatzeko, besteak beste. Europako Legebiltzarrak homofobia gaitzetsi zuen urtarrilaren 18an. Aste batzuk lehenago, Poloniako eta Letoniako agintariek harreman edo aldarri homosexualen kontra

hartutako neurri gogorrek bultzatu zuten Europako Legebiltzarra jarrera hori hartzera. Eta ekainean, berriz ere, gay eta lesbianen kontrako jazarpena izan da Europako ekialdean. Txekiar Errepublika eta Eslovenia kenduta, sozialista izandako gainerako herrialde guztietan egoera latza bizi dute gayek eta lesbianek.

'Berria'  
2006-07-16



## Tira, tira...



- Ekialde Ertaineko sarraskiek jarraitu egiten dute.

Zulet 'El Diario Vasco' | 2006-VII-16

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Mundo'

#### ELKARRIZKETA

"Legalizazioaren ostean ere ez dira posible izango akordio politikoak Batasunarekin. Bat ez da demokrata egiten agiri batekin. Ezin dena da Auzitegi Nazionalako maizter izatetik gure bizitzak zuzendu nahi izatera pasatu. Oraindik ez diot entzun inongo buruzagi sozialistari esaten ezker abertzalearekin zuzendu nahi duenik herrialde hau".

Javier Rojo  
2006-07-16

### 'Noticias de Gipuzkoa'

#### ELKARRIZKETA

"Harritu egin nau euren burua kazetaritzat duten hainbatek, nire atxiloketaren gainean berba egitean, *Egin* egunkariko zuzendari ohi bezala aurkeztu izana. Azaldu barik egunkari horretatik bota egin nindutela. Deskripzio erabat alderdikoiak egon dira eta intenzionalitate politiko garbiarekin, hainbat kasutan".

Pablo Muñoz  
2006-07-16

### 'Berria'

#### ELKARRIZKETA

"PSE-EEK darabilen egutegiak ez du bat egin euskal gizartearen nahiarekin, askoz motelagoa doa. Sozialistek ez diote sakoneko eztabaidari heldu nahi, hots, ez diote euskal herritarrek erabakitzeko duten esku-bideari heldu nahi. Eta ez badiote prozesuari bultzada ematen horrek esan nahi du ez dutela interesik mahaia abian jartzeko".

Javier Madrazo  
2006-07-16

### 'Gara'

#### ELKARRIZKETA

"Bada esaera bat dioena sekula ez dela berandu emaitza ona baldin bada. Baina pixka bat berandu iritsi zait antzerkigile ibilbidea aitortzeko Victoria Eugenia saria, hori ere esan egin behar da. Aurtentz laurogei urte bete ditut. hala eta guztiz ere, bi lan estreinatuko ditut aurtentz Madrilan".

Alfonso Sastre  
2006-07-16

## Zorroztailea

### Ez dira asko aldatu



*¡Navarra por España! Pamplona, en estrecho y cordialísimo abrazo con el Ejército, Requetés y Falange, vitoreó a España y a Navarra con entusiasmo indescriptible todo el día del domingo. El General Mola, en medio de emoción intensísima, es aclamado sin cesar con vítores aclamantes a España.*

'Diario de Navarra' |  
1936-07-20

#### Jabier Arantzeta

Sarrerako hau sasoiko espainieraz utzi dut bere aberastasunez jabe zaitetzen, gainera, horrek, itzulita, indarra, edo grazia, galduko luke.

Baina, goazen harira, orain dela 70 urte goiko hori zioen *Diario de Navarra*-k eta aurreko astean, *Diario Vasco*-k eta *Correo Español*-ek moduan, ez zuen bat egin Pablo Muñozen atxiloketaren aurka euskal komunikabideek ateratako agiriarekin.

Pasatako urte guzti horien ostean antzera jarraitzen dute, gaur egun itxurak zerbait gehiago zaindu behar dira, eta hori zaintzen dute, baina bestelakoan berdin: Espainia handi eta bakarraren kontrako arriskurik bada, Justizia, edo Eliza, edo Armada, edo denak batera, erabiliko dituzte.

Komunikabide hauek ez dira politikoak, ez dute politikarik egiten, ez dira politikan sartzen, hori da, euren esanetan, euren ezaugarri nagusia. Eta gutako asko era-

bat sinistuta. Herriko berri gehien hor egoten ei dira, ze berri jakin behar? Hildakoen berri zehatzena ere hor aurkitzen ei da. Etxebizitzaren eskaintza zabalena ere hortxe. Puta eta txaperoena ere bertan. Hori da aukera hori!

Baina, poliki-poliki, ideologia espainiar eskumako katoliko hori zabaltzea da euren ardura. Espainia zatitzeaz (abertzaleon desiorik handienaz) ezin da berba ere egin, hori demokraziaren kontra ei dago. Kontu jabetza pribatuaz edo aberastasunen banaketaz jardutearekin, horrek ere oinarri oinarritzko demokrazia zapuzten ei du. Oso tolerantak gara eta homosexualak onartuko ditugu, baina garbi edukita beti "raritoak" direla. Eta horrela beste gauza guztiekin ere.

Eta bukatzeko, berriro hasierakora bueltatuta, bihar Santa Marina ere bada eta ondo pasatu hori ospatuko duzuenok.

**"Diario Vasco-k eta Correo Español-ek ez zuten bat egin Pablo Muñozen atxiloketaren auka euskal medioek egindako agiriarekin"**

**"Medioek ez dira politikoak, ez dute politikarik egiten, ez dira politikan sartzen, hori da, euren esanetan, euren ezaugarri nagusia"**




# KIROLA

- Debagoieneko I. Tenis txapelketa Jorge Aranesek irabazi zuen | 18
- Bergarako Santa Marina txirrindulari sarian Beñat Urain garaile | 18



**Txus Brizuela**  
saskibalo  
entrenatzaile  
ohiarekin izan gara  
hitz egiten | 21

**EUSKALDUN MAILAKO TXIRRINDULARITZA PROBA**



Podiumean Francisco eta David Gutierrez, Elgetako mendi kriteriumeko sariak jaso ondoren.

ARANTZAZU EZKIBEL

**MENDIKO 22. KRITERIUMA** | BEROA IZAN ZEN PROTAGONISTA ATZO ELGETAKO LASTERKETAN

## Erakustaldi bikaina eginda, Baque taldeko Francisco Gutierrez garaile

*147 txirrindularik hartu zuten parte Elgetako proban; helmugara 51 besterik ez zen iritsi*

*Asentzio gaina bi aldiz igo behar izan zuten: behin Angiozartik eta beste behin Elgetatik*

Arantzazu Ezkibel

Francisco Gutierrezek erakustaldi bikaina egin zuen atzo Elgeta igotzen. Bergaran gora minutu bateko tartearekin zihozten aurretik Camargo taldeko Thijs Zonneveld eta David Gutierrez, baina txirrindulari bizkaitarra

gogor etorri zen atzetik aurrera eta Elgetako helmugara lehenengo sartu zen.

### 51 HELMUGARATU ZIREN

Atzoko protagonista, duda barik, beroa izan zen. Goizeko 10etan 147 txirrindularik eman zioten hasiera lasterketari, baina helmugara 51 besterik ez zen iritsi.

Beste behin ere argi geratu zen Elgetako probak duen zailtasuna. Txirrindulariek bi aldiz igo behar izan zuten Asentzio gaina; lehenengoan Angiozartik gora eta bigarrenean Elorriotik Elgetara igo ostean.

### AREITION IHESALDI SAIOA

Txirrindulariak Elgetatik Eloreira abiatu ziren saihasbidetik. Han, Atxondotik Abadiñora hartu zuten. Lehenengo kilometroetan ihesaldi saiakera antzuek egon ziren.

Matienea eta Berriz pasa ondoren, txirrindulariek Zaldibartik Areitio gainera hartu zuten. Han, Lizarte taldeko Ibai Berasategik erritmoa aldatu zuen eta hura pasa zen tarteko helmugatik lehenengo. Areitio gaineko tarteko helmugan 30 euroko saria izan zuen Ibai Berasategik.

Txirrindulariak Areitiotik Ermuara jaitsi ziren. Eibarren Bergara aldera hartu zuten eta Angiozartik Asentzio gainera igo ziren. Esan bezala, Asentzio bi bider igo zuten parte-hartzaile-

ek. Lehenengo igoeran, Alfus taldeko Marconi Duran izan zen azkarrena Asentzion.

Bigarren igoerarako, bederratz lagunez osatutako taldea abiatu zen Elgetatik Asentziorantz. Taldetxotik ihes egin eta David Gutierrezek gurutzatu zuen tarteko helmuga lehenengo. Harenztako izan zen Langarika saria.

**Asentzioko Langarika saria David Gutierrezek eraman zuen**

**Euskalduna sariko maillota Francisco Gutierrezentzat izan zen; hura da sariko liderra**

### EUSKALDUNA SARIA

Azken kilometroetan, baina, David Gutierrezek ez zion aldeari eutsi. Atzetik etorrita Francisco Gutierrez izan zen garailea. Irabazleak garaikurra, lore sorta, maillota eta eskopeta eskuratu zituen. Horiez gain, euskalduna sariko maillota ere harentzat izan zen. Bederatzi lasterketa irabazi ditu aurtan. David Gutierrezek Lehiatsuenaren saria eta Langarika saria eskuratu zituen.



EUSKALDUN MAILAKO TXIRRINDULARITZA PROBA



**Hasiera goizeko 10etan.** Elgetako plazan eman zitzaion hasiera lasterketari. Bertan, 18 taldetako 148 txirrindulari batu ziren. Elgetatik Kanpanzar aldera hartu zuten, eta gero Elorriora.



**Asentzio gaina.** Bi aldiz pasa ziren txirrindulariak Asentzio gaitetik. Lehenengoan, lasterketako 63. kilometroan, Alfus taldeko Marconi Duran pasa zen lehenengo eta bigarrean, David Gutierrez.

**Emaitzak**

**LEHENENGOAK**

1. Francisco Gutierrez	(3:09:23)
2. Hernan Ponce	(3:09:41)
3. Thijs Zonneveld	(3:10:03)
4. David Gutierrez	(3:10:11)
5. Jon Pena	(3:10:20)
6. Roberto Barrientos	(3:10:52)
7. Aitor Reguillaga	(3:11:14)
8. Yvan Rybakov	(3:11:34)
9. Garikoitz Zabaleta	(3:11:53)
10. Pedro Merino	(3:12:36)
11. Marconi Duran	(3:12:43)
12. Lander Aperribai	(3:13:08)
13. Ramuntxo Garmendia	(3:13:15)
14. Eduardo De Miguel	(3:13:34)
15. Eloy Carral	(3:14:07)
16. Juan Luis Negueruela	(3:14:18)
17. Ugaitz Artola	(3:14:29)
18. Sergio De Lis	(3:14:41)
19. James Lampier	(3:14:50)
20. Thomas Lebas	(3:14:56)
21. Aitor Olano	(3:15:08)
22. Jose Antonio Larrea	(3:15:30)
23. Iñigo Lariz	(3:16:50)
24. Iñigo Sagastibeltz	(3:16:55)
25. Igor Romero	(3:18:25)
26. David Pelaz	(3:18:25)
27. Alberto Garcia	(3:18:53)

**LEHENENGO TALDEA**

1. Camargo-Roper	(9:39:27)
------------------	-----------



**Ihesaldia.** Elgeta bigarren aldiz igo zutenean, Elorriotik gora zihazela, bederatzi txirrindularik ihes egin zuten, tartean Francisco Gutierrez irabazleak. Elgetako plazan 45 segundoko aldea zuten.



**Helmugan Francisco Gutierrez garaile.** Elgetako 22. mendiko txirrindulari lasterketa Cafes Baque taldeko txirrindulariarentzat izan zen. Gutierrezek erakustaldi bikaina egin zuen Bergaratik Elgetara-ko bidean. Euskalduna sariko maillota ere Franciscorentzat izan zen.

**FRANCISCO GUTIERREZ | IRABAZLEA**

**“Elgeta hiru aldiz igo behar izaten da; oso gogorra egiten da”**


**Euskaldun mailako txirrindularitza proba gogorra ikusi duzu Elgetan.**

Bai, Elgetako lasterketa beti izaten da gogorra. Elgetara hiru leku ezberdinetatik igo behar izaten da eta hori oso gogorra egiten da. Bukaerara Elgetako helmugara txirrindulari gutxi batzuk bakarrik heldu gara, askok lasterketa utzi behar izan dute.

**Hasieratik izan dira ihesaldi saioak. Talde on batean sartzea lortu duzu?**

Azken 35 kilometroetan, Elorriotik Elgetara gentozela, bederatzi lagun ez osatutako taldea sortu dugu. Bergaran gora Camargo taldeko bi txirrindularik ihes egin dute, eta denbora tarte handia atera, baina azkenean harrapatu egin ditut eta irabaztea lortu dut.

**Euskalduna sariko lider maillota ere zuretzat izan da. Nola doa denboraldia?**



Denboraldi ona egiten ari naiz. Orain arte bederatzi lasterketa irabazi ditut. Elgetan irabaztea zen nire helburua. Profesionalera salto egin gurako nuke, uste dut hori dela nire lekua.

**DAVID GUTIERREZ | MENDIKO SARIA**

**“Pena izan da egindako lanaren ostean garaipenak ihes egitea”**

**Zer moduz joan da lasterketa?**

Oso gogorra izan da. Bero handia egin du, eta probak mendate asko dituen Elgetako lasterketa gogorra egin zait.

Zorionez, azken kilometroetan sortu den bederatzi txirrindulariko taldean sartzea lortu dut.

**Bergaratik Elgetara talde bereko bi txirrindulari hasi zarete, baina azkenean lasterketa Cafes Baque taldeak irabazi du.**

Bai, hala izan da. Elgeta bigarren aldiz igo eta gero, Asentziara lehenengo iritsi naiz. Handik Bergara ere taldeko Thijs Zonneveld eta biok batera jaitsi gara. Baina Elgeta azkeneko aldiz igotzen hasi garenean, bidean, Cafes Baque taldeko Francisco Gutierrez gogor etorri da atzetik eta lasterketa irabazi du. Pena handia izan da egin dugun lasterketaren ondoren garaipena ezin lortu izana.



**Langarika saria eta Lehiatsuenaren saria ere zuretzat izan dira.**

Bai, Asentzio bigarren aldiz pasa dugunean, Langarika saria eman dute eta ni izan naiz lehena bertatik pasatzen.



# Iruditlan



JOSETXO ARANTZABAL

**Pilota Antzuolan.** Mendizabal eta Azkarate Antzuolako bikoteak 21-22 galdu zuen Atxotegi eta Azkarateren aurka. Profesionaletan, Muruamendarazek eta Zezeagak 16, Berraondok eta Sukiak 22.



JOSETXO ARANTZABAL

**Santa Marina jaiak Bergaran.** San Joxepe nagusien egoitzan bolo txapelketa jokatuko dute gaur, arratsaldeko 4etan. Eguenean eta egubakoitzean briskan eta musean aritu ziren Bergarako nagusiak. Joko guztien sari banaketa bihar izango da, arratsaldeko 5etan, nagusien egoitzan bertan.



MIREIA BIKUÑA

**Herri kirolak.** Arrasateko Santa Marina auzoko jaien barruan eta argazkietan ikusten den moduan, harri-jasotzaile eta aizkolariek erakustaldia egin zuten atzo. Ugaitz eta Aratz Mugertza anaiek bost enbor moztu zituzten. Miren Urkiolak, aldiz, 88 eta 75 kiloko harriekin egin zuen erakustaldia. 75 kilokoa harri biribila zen.



# SHARON STONER

**DANBAKA))))))**

**LEHIAKETAKO I. EDIZIOKO IRABAZLEA**

## DISKO BERRIA ZURE ESKU



**ESKAITZA  
BEREZIA  
ASTELEHENKO  
GOIENKARIKO  
HARPIDEDUNENDAKO**

CDa + etxean jasotzea\*: **10 euro**

Harpidedun ez bazara, harpidetu orain eta jaso CDa etxean\* **DOAN**



ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Egin zure eskaria uztailearen 21a baino lehen!

Deitu telefono honetara: **902 36 38 51** 9:00etatik 18:00etara

**EDO** harpidedun bazara, eta nahiago baduzu, bete kupoia eta bidali:

Harpideduna (Izen abizenak) .....

Kalea..... Herria.....

Telefonoa.....

Bidali kupoia GOIENARA: 132 posta kutxa 20500 ARRASATE

\*Astelehenko Goienkariako banaketak onartzen duen kasuetan bakarrik.



**Txirrindularitza**

# Santa Marina saria esprintean erabaki zen

*Lokatza taldeak antolatutako lasterketan 87 txirrindulari izan ziren; 61 iritsi ziren*

Arantzazu Ezkibel

Gazte mailako XV. Santa Marina saria Colchon Latex taldeko Beñat Urainek irabazi zuen. 103 kilometroko ibilbidea egin eta gero, Beñat, Unai Iparragirre, Julen Mitxelena eta Urko Izagirre izan ziren azkarrenak Matxiategi kaleko helmugan. Esprintean erabaki zen txapelketa; lauretan azkarrena Urain izan zen.

**UDANA MENDATEA IGO ZUTEN**

Arratsaldeko 4etan eman zitzaion hasiera lasterketan. Txirrindulariak Bergararik Osintxura abiatu ziren, han, buelta eman eta Eskoriatza aldera joateko. Lehengo itzuli honetan, 14 txirrindulariz osatutako taldeak tropeletik ihes egin zuen. Txirrindulariek Elorregin Bergara aldera hartu zuten. Bigarren itzulian, Elorregin Oñatirantz jo zuten; Udana igo eta Zumarragara egin zuten. Deskargatik Antzuolara jaitzi ziren txirrindulariak. Udana mendatean ere, denetan azkarrena Beñat Urain izan zen.

14 txirrindulariz osatutako taldetxoak minutu batera zuen tropela. Azkenean, baina, taldea desegin egin zen eta aipatutako lau txirrindulariak heldu ziren lehenak Bergarako helmugara.



Beñat Urain, Asier Penabad eta Caja Ruralekoak saria jasotzen.

Urainek, txapeldunaren sariaz gain, mendiko saria ere eskuratu zuen. Herriko lehenengo txirrindulariaren saria Asier Penabadentzat izan zen eta taldekako saria Caja Ruralek eman zuen. Saria jasotzera Garikoitz Bravo gerturatu zen.

**61 TXIRRINDULARI IRITSI ZIREN HELMUGARA**

Zapatukoa Santa Marina jaietako gazte mailako lasterketa izan zen. Lasterketari hasiera 87 txirrindulari eman zioten, eta 61 sailkatu ziren. 103 kilometroko lasterketa izan zen eta irabazlearen batez bestekoa izan zen 37,7 kilometro orduko.

Iazko lasterketa Gurutz Larrea Antzuolarrak irabazi zuen Lokatza elkartearekin.

**Emaitzak**

LEHENENGOAK	
1. Beñat Urain	(2:43:37)
2. Unai Iparragirre	(2:43:37)
3. Julen Mitxelena	(2:43:37)
4. Urko Izagirre	(2:43:37)
5. Jokin Iartza	(2:49:39)
6. Gorka Ursua	(2:49:47)
7. Aitor Ocampos	(2:49:50)
8. Antxon Anduaga	(2:50:29)
9. Unai Amenabar	(2:50:29)
10. Ander Arandia	(2:50:29)
11. Iñaki Lekuona	(2:50:29)
12. Aritz Bagues	(2:51:29)
13. Jon Oria	(2:52:06)
14. Markel Diego	(2:52:19)
15. Iker Gandarias	(2:52:24)
16. Iñigo Arregi	(2:52:24)
17. Garikoitz Bravo	(2:52:24)
18. Asier Penabad	(2:52:24)

**Tenisa**



Debagoieneko tenis txapelketako irabazleak sariekien.

# Jokatu barik irabazi zuen Jorge Aranesek Debagoieneko txapelketa

*Juan Luis Etxaniz lesionatuta zegoen eta finala bertan behera geratu zen*

Mireia Bikuña

Izerdirik bota gabe irabazi zuen Debagoieneko tenis txapelketa Jorge Aranesek; izan ere, harekin finala jokatu behar zuen Juan Luis Etxaniz min hartuta zegoen. Bada, Zubikoako tenis pistan iragarrita zegoen finala ez zen jokatu. Sariak jasotzera hurbildu ziren atzo Oñatiko kiroldegira.

**KONTSOLAZIO FINALA**

Izerdia gogotik egin zuten kontsolazio finala jokatu zuten Roberto Irizar eta Jorge Caba-

llerok. Irizarrek lortu zuen txapelketako hirugarren postua, 6-2 eta 6-0 irabazita.

Hamaikagarren postutik hemezortzira geratutako tenislariak ere jokatu dute beste fase bat. Horiek ere finala atzo jokatu zuten; Jesus Anduagak eta Gerardo Eskartzak, hain justu ere. Anduagak lortu zuen garai-pena bi setetan: 6-2 eta 6-2.

**18 JOKALARIK HARTU DUTE PARTE TXAPELKETAN**

Oñatiko tenis pistetan jokatu den Debagoieneko tenis txapelketa 18 jokalarik parte hartu dute. Sei jokalariz osatutako hiru talde egin ziren. Bigarren faseko talde bakoitzeko lehenengo hiru jokalariek eta laugarren onena sailkatu ziren. Bigarren faseko jokalariek onenak izan ziren finalerako sailkatu zirenak.

Horrekin batera, gainontzeko jokalariek ere beste fase bat jokatu zuten.

**Igeriketa**

# Ander Zarketa eta Nielka Iburguren Espainiako Txapelketarako sailkatu dira

Mireia Bikuña

Galdakaon jokotutako Euskadiko Txapelketan lortu zuten Ander Zarketa oñatiarrak eta Nielka Iburguren bergararrak beharrezkoa zuten gutxieneko denbora.

Ander Zarketak, gainera, urrezko domina lortu zuen 200 bizkarrean eta brontzezkoa, 100 bizkarrean. Nielka Iburgurenak, aldiz, 100 eta 200 bularrean bigarren lekuan sailkatu zen eta 50 bularrean, hirugarren. Bronzezko domina lortu zuten baita ere Ana Balentziagak eta Peru Alustiza bergararrek.



Txapelketan Oñatiko eta Bergarako 15 igerilariak parte hartu zuten.

**Xakea**

# Espainiako Txapelketa jokatzeko ari da Asier Etxagibel Caceresen

Arantzazu Ezkibel

Egubakoitzean hasi zen Espainiako Txapelketa eta dagoeneko 5 partidu jokatu ditu Asier Etxagibel arrasatearrak. Guztira, bi puntu lortu ditu; hain zuzen, hiru partidu galdu eta bi irabazi ditu.

**EUSKADIKO TXAPELDUNA**

Asier Euskadiko txapelduna da, eta hori dela-eta Caceresen jokatzeko ari diren Espainiako Txapelketan parte har-

tzeko txartela eskuratu du. 152 gaztetxo ari dira Espainiako infantil mailako txapelketan.

Asierren aita Pedrok esan digunez, oso maila oneko jokalariek daude Caceresko txapelketan; batez ere Madrillgo eta Bartzelonako ordezkariek.

Asierrek gaur partidu bat jokatu behar du, bihar bi partidu ditu eta eguaztenean azkenekoa jokatu du. Emaitzak hobetzea du helburu.



BERGARAKO IPINTZAKO TXAPELKETA | FINALAK EGUBAKOITZEAN JOKATU ZIREN

# La Juve eta Gorriones, liga eta kopako txapeldunak

*La Juvek mendean hartu zuen Angiola taldea (5-0) Ipintzako liga txapelketako finalean*

*Gorriones taldeak gol bakar batekin irabazi zuen kopa txapelketa. Indar Gorriren aurka jokatu zuen*

Mireia Bikuña

Partidu gogor eta parekatuak espero zituzten antolatzaileek egubakoitzeko finalean. Eta hala xe gertatu zen. Hain zuzen ere, kopako finala gol batekin erabaki zuen eta ligako finalean, aldiz, gol festa izan zen.

## KOPAKO FINALA

Ligako finalerdiak galdu ondoren, kopako finala jokatu zuten Gorriones eta Indar Gorri taldeek. Partidu parekatua jokatu zuten. Hasierako minutuetan aukerak izan zituzten golak egiteko. Gorriones taldeak baloi bat langara bidali zuen. Gola, baina, lehen zatiko azken segundoetan lortu zuen Ander Berraondok. Ezkerretik erdiratutako falta jaurtiketa bat errematatu zuen Gorriones taldeko jokalaririk. Hark eman zion abantaila atsendaldian, 1-0.

Eta gol hura nahikoa izan zen kopa txapelketa irabazteko. Izan ere, Indar Gorriek gola lortzeko ahalegina egin zuen bigarren zatian eta aukerak ere izan zituen. Baina jokalaria bat gutxiagorekin geratu ondoren Indar Gorriko jokalaria batek bi txartel

hori ikusi zituen- ez zuen berdinketa lortzeko biderik izan.

## LA JUVE, TXAPELDUNA

Kopako finalaren ondotik ligakoa jokatu zen. La Juve eta Angiola taldeen arteko lehia bost gol ikusteko aukera izan zuten Ipintzara hurbildutakoek. Lehen zatia oso parekatua izan zen arren, La Juvek abantaila hartu zuen markagailuan Urko Irizarrek egindako golari esker. Falta erdiraketa baten, atezainak ez zuen baloia ondo urrundu eta Urkoren bizkarrean jo ondoren gola etorri zen.

Gainontzeko lau golak bigarren zatian sartu zituen La Juvek. Paco Santiagok egin zituen bi gol eta Oier Loiolak eta Iñaki Muxikak gol bana. La Juvek penalti jaurtiketa bat ere izan zuen: Kepa Irizar atezainaren baloiak langan jo zuen.



La Juve eta Angiola taldeko jokalariek argazkia atera zuten sariak jaso ondoren.

JOSETXO ARANTZABAL



Kopako bi taldeen -Gorriones eta Indar Gorri- kamisetak gorriak ziren. Argazkian bildu genituen sariekin.

MIREIA BIKUÑA

## SARI BANAKETA

Finalak jokatu ondoren sari banaketa ekitaldia egin zuten Ipintzaren bertan. Txapelketako jokalaria, atezain eta golegile onenak eta jokalaria eta talde beterranoenak saritu ziren.

Iñaki Muxika (La Juve) izan da, 9 golekin, txapelketako golegile nagusia; Jon Altzola (Txokokuak) jokalaria onena; Iñigo

Ibartzabal (A Ze Flaxa) atezain onena; Mikel Eraña (Gorriones) jokalaria beterranoena eta A Ze Flaxa taldea, talde beterranoena. Ander Berraondo (Gorriones) eta Urko Irizar (La Juve) izan ziren finalerdiaren jokalaria onenak.

Epaile eta marrazain lanak egiten dituzten lagunek ere jaso zuten saria; Lauri Azkargorta, Iñigo Pagaldai, Boni Agirre, Xabi

Albisua eta Patxi Vallejos saritu zituzten antolatzaile taldeak.

## IPINTZAKO ZOZKETA

Egubakoitzean egin zen baita ere Ipintzako txapelketako zozketa. Zerbaki saritua 01099 izan zen eta ordeko zerbakia, 00535. Zerbaki sarituaren jabeak lau pertsonendako afaria irabazi du Bergarako Zumelaga jatetxean.

## • FINALETAKO PROTAGONISTAK



ANDER BERRAONDO ETA JOSU AGIRRE | GORRIONES ETA INDAR GORRI

"Gorriones taldeak kopa txapelketa irabazi arren, ez du ondo jokatu", esan zigun Berraondok. "Gol bakarra falta erdiraketa baten lortu dugu", gehitu zuen. "Indar Gorri txapelketa polita jokatu du eta lehen aldiz finalera iritsi gara", esan zuen Agirrek.



KEPA IRIZAR ETA ANDONI AZKARGORTA | LA JUVE ETA ANGIOLA

"Lehenengo zatian bi taldeek antzerako jokatu dugu. Baina bigarrenean La Juvek askoz hobeto jokatu du. Gaurko norgehiagokak kolore bakarra izan du: horia. La Juvek merezimendu osoz irabazi du txapelketa".

**Gorriones taldeari garaipena eman zion gola Ander Berraondok buruz egin zuen**

**Txapelketan epaile eta marrazain lanak egiten dituztenek sari berezia jaso zuten**

## Txapeldunak mailaz maila

### GIZONEZKOAK, LIGA

1. La Juve
2. Angiola

### GIZONEZKOAK, KOPA

1. Gorriones
2. Indar Gorri

### BETERANOAK

1. Ugarriza
2. Irish Pub

### EMAKUMEZKOAK, SENIORRAK

1. Ostrukak
2. Arrano

### EMAKUMEZKOAK, KADETEAK

1. Potx
2. Sorluze

### NESKEN A MAILA

1. Lagundia A
2. San Martintxo



**UDA**

# Kirol zuzendaritza tekniko lanak egingo dituen enpresa bat kontratatu nahian dabil UDA

*UDA osatzen duten sei kirol sailetako laburpena egin zuten eguenean izandako batzarrean*

Arantzazu Ezkibel

Denboraldi berrirako proposamena izan da UDA kirol elkarteko zuzendaritza tekniko lanak egingo dituen enpresa bat kontratatzea. Kirol elkartekoak Udalarekin harremanetan jarri dira eta laster iritsiko dira akordio batera. Udalaren eta UDAREN artean ordainduko dute.

**URTEAREN LABURPENA**

Aretxabaletako elkarte osatzen duten sei sailen laburpena egin zuten, lehenik, egueneko batzarrean. Futboleko, maila ezberdinetako taldeek eginiko denboraldia azpimarratu zuten. Pilotan, Errasti anaiek Debarroko

txapelketan egindako lana aipatu zuten. Eta areto futboleko, lehenengo urtea izateko, esperientzia ona izan dute.

Txirrindularitza, mendi eta karate sailetan eginiko lana ere bide onetik doala esan zuten.

**ALDERDI EKONOMIKOA**

05/06 denboraldian 1.009,55 euroko defizita izan dute UDAkoek. Diru sarrerak 109.141,21 euro izan dira eta gastuak, berriz, 110.150,76 eurokoak. Denboraldi berrirako 123.200 euroko aurrekontua izango dutela aurreikusi dute. Ibarra futbol zelaiko kuotei dagokienez, honakoak izango dira: laguntzaileek 75 euro, harpidedunek 55 euro, bazkideek 40 euro, erretiratu eta juniorrek 25 euro eta gazteek 15 euro.

Denboraldi berrirako helburuen artean instalazioak hobetzea dago; besteak beste, Ibarra futbol zelaiko belarra aldatzea aurreikusita dago.

Andramaixetan Joxe San Migeli urrezko intsignia jarriko diotela ere esan zuten pilota sailean 17 urtez egindako lanarengatik.



JOSETXO ARANTZABAL

Kirolarien maila teknikoa hobetuz, kirol errendimendua hobetzea nahi dute UDAko zuzendaritzakoek.

**Bergara Kirol Elkarteak**

## Iñaki San Josek elkarteko presidente kargua utziko du

*Bergara Kirol Elkarteak barikuan egindako bileran, gainera, bazkide kuotak igotzea onartu zuten*

Mireia Bikuña

Horiek izan ziren egubakoitzeko batzarreko gai nagusiak. Iñaki San Josek bere agurraren berri eman zuen. Eta harekin batera batzordean egondako beste sei lagunek ere utziko dute kargua. Guraso talde bat izango da batzorde berrian sartuko dena.

Bergara Kirol Elkartearen batzarrean, bestalde, denboraldi berrirako bazkide kuotak igotzea onartu zuten. Erretiratu eta tribunako kuotek 5 euroko igotzea izango dute; bazkide babesleek 10 eurokoa eta gurasoen kuota 120 eurotik 200era igoko da.



JOSETXO ARANTZABAL

Iñaki San Josez gain, elkarteko lau sailetako arduradunek hartu zuten hitza.

**LAU SAIL**

Futbol, pilota, eskubaloi eta saskibaloi sailek urteko kirol balantzea egin zuten.

Futbol sailek gustura amaitu du urtea, preferenterako igorak ihes egin arren. Pilota saileko arduradunen helburuak bete egin dira, kadete mailan izan ezik.

Eskubaloi sailek talde nagusiaren denboraldia azpimarratu zuen. Denboraldi berrirako bi talde berri osatu nahi dituzte: senior mailako neskek eta kadete mailako mutilak.

Saskibaloian, aldiz, gazte mailako talderik ez da egongo datorren denboraldian.

**Mondra Futbol Taldea**

## Mondra taldeak jantzi berriak estreinatu nahi ditu 06/07 denboraldian

*Kirol balantzeari dagokionez, preferente mailako taldeaz gehiago espero zela esan zuten*

Arantzazu Ezkibel

Antzinako kamiseten itxura izango duten jantziak estreinatu nahi ditu aurtengo denboraldian Mondra taldeak. Hala, kamisetaren erdia zuria izango da eta beste erdia morea. Galtzetan publizitatea eramanango dute jokalariek. Hori da egueneko batzarrean adierazi zutena.

**NESKAK BIKAIN**

Aurtengo denboraldiari dagokionez, zapore gazi-goza utzi du zuzendaritza taldean. Preferente mailako taldeaz gehia

go espero zela esan zuten. Nesken taldeak, ordea, maila bikaina erakutsi du. Elkartearekin izan duten konpromisoa ere azpimarratu zuten zuzendaritza taldekoek.

Denboraldi berriari begira, Igor Gordobilek izango du preferente mailako taldearen arduraria. Atezain berri bat ekarriko dute, Eibar taldeko Mikel Calvo, eta Amutxastegik gazteak aurrendenboraldia talde nagusiarekin hasiko du.

Nesken taldean aldaketa bat izango da: entrenatzaile kargua orain arte jokalaria izandako Nerea Pedrosak hartuko du.

**KUOTAK EZ DIRA IGOKO**

Denboraldi berrian kuotek dauden jarraituko dute. Zuzendaritzaren asmoa Musakolako zelai berriarekin sozio kopurua handitzea izango da.

Aurrekontuari dagokionez, 2. erregionaleko talde berria dela-eta, gastua igo egingo da. Hala, 107.000 euroko aurrekontua aurreikusi zuten 06/07 denboraldirako.



Txus Brizuela Arrasaten izango da asteen, gaztetxoekin saskibaloia entrenamenduak egiten. Gasteiztarra izan arren, aski ezaguna da Brizuela Arrasateko saskibaloia

zaleen artean. Urbina-Maltzaga taldeko entrenatzailea izan zen eta Arrasateko taldeak EBA ligara igotzea lortu zuen. Azkenaldian, entrenatzaile lanak alde

batera utziak ditu eta esatari lanetan aritzen da EITB taldean. Arrasaten eman zituen 5 urteez eta saskibaloiaz hitz egiten izan gara Txus Brizuela gasteiztarrarekin.

**TXUS BRIZUELA | SASKIBALOI ENTRENATZAILE OHIA**

# "Gaztetxoei saskibaloia oinarritzko teknikak erakutsiko dizkiegu"

Arantzazu Ezkibel

**Zer landuko duzue Arrasaten egin-goto dituzuen jardunaldietan?**

Arrasaten egingo ditugun jardunaldietan gazteek saskibaloia ezagutzea nahi dugu. Arratsaldero entrenatuko gara, 2 orduko atsedena hartuta.

40 bat gazte bilduko gara eta saskibaloia oinarritzko teknikak landuko ditugu.

**Nolako oroitzapenak dituzu Arrasaten emandako urteez?**

Oso oroitzapen onak ditut Arrasaten egin nituen 5 urteez. Denetan gogorra EBA ligara igo ginen urtea izan zen. Oso urte gogorra izan zen.

Arrasaten egin nituen urteetan izan nuen esperientziak gero saskibaloian jarraitzeko indarra eman dit. Oso oroitzapen onak ditut; saskibaloia mailan, esperientzia aberasgarria izan zen niretzako.

Baina oroitzapen onak bakarrik ez ditut, lagun oso onak ere egin nituen. Horregatik, laguntza eskatu didatenean, ez dut izan arazorik baiezkoa emateko. Nire esku dagoen guztia egingo dut.

**Non sufritzen da gehiago; jokoan, aulkian ala mikrofono aurrean?**

Nire ustez, saskibaloiaz gozatzeko modu onena eta erosoena jokatzeko da. Jokalari bezala protagonista zuzena zera. Jokalari baten sufrimendua entrenamenduetara eta partiduetara mugatzen da. Bertan hasi eta bukatzen da sufrimendua.

Entrenatzaile zarenean, ordea, entrenatzaile izatearen ardura egun guztian gainean daukazu. Zure ardura eta lana ez da partiduetara bakarrik mugatzen. Horretaz gain, taldeak ze arazo dituen eta arazo horiei nola aurre egin pentsatzen ematen duzu egun guztia.

Eta esatari lana bizimodu samurrena dela esan daiteke. Hau da, gustuko dudana ikustea da nire ardura, kasu honetan saskibaloia. Gero, ikusten duzun

horri buruz iritzia eman besterik ez daukazu. Saskibaloia munduan sartuta zaude, baina egia da parte-hartzaile zuzena ere ez zarela. Komunikabideetan egiten dudana zale huts bezala egiten dut.

**Noiz eta nola hasi zinen saskibaloian?**

Denak bezala, ni ere txikitik hasi nintzen, eta ustekabean.

14 bat urte nituen saskibaloian jokatzeko hasi nintzenean. Orduko nire gimnasiako irakaslea Cecilio Ugarte zen. Hura, eskal kirolari historikoa izan zen. Municheko Olinpiar jokoetan parte hartu zuen Ceciliok, gimnasia modalitatean.

Cecilioaren bidez hasi nintzen, hark animatu ninduen saskibaloian jokatzeko hasiera. Lehenengo urteak eskolan egin nituen eta beste guztia konturatu gabe iritsi zen. 10 urte egin nituen saskibaloian jokatzeko, 23 urterekin erretiratu nintzen, belauneko lesio bat tarteko. Gero, lagun artean jokatu dudana arren, entrenatzerara pasa nintzen.

**Orain, entrenatzaile lanak ere alde batera utziak dituzu?**

Bai, orain ez dut talderik entrenatzen. Bigarren alaba izan genuenean, entrenatzeari utzi nion. Lan mundua eta bizitza familiarra bateratzea zaila egin



Arrasaten lagun onak egin zituela esan digu Txus Brizuelak.

zitzaidan. Azken finean, saskibaloia talde bat eramateak denbora luzea eskatzen du. Hala ere, berriro entrenatzen hasteko gogoia beti izan dut.

Baina ia ezinezkoa ikusten dudanez talde bat hartzea entrenatzen hasteko, ba horrelako jar-

dunaldiek grina hori kentzeko balio didate. Saskibaloian ondo lan egiten duen jendea da Arrasatekoa eta horrelako lekuetara gustura etortzen naiz.

**Saskibaloian hasi zenez nor izan zenuen maisu eta zer erakutsi zizun?**

Nik zorte handia izan dut alde horretatik. Asko dakien jendearekin hasi nintzen saskibaloian eta agian horregatik jarraitu dut mundu honetan.

Entrenatzaile bezala nire erreferente nagusia Manu Moreno izan da. Iñaki Iriarterekin ere asko ikasi nuen. Garai hartan, Gasteiz oso hiri aberatsa zen saskibaloia jarduteko. Saskibaloia barrutik bizi zuen jendea zegoen eta niri ere saskibaloiarekiko zaletasun hori eman zidaten. **Non antzematen diozu gazte bati saskibaloian jokatzeko dohainak dituela?**

Garrantzitsuena saskibaloian jokatu nahi duen pertsona aur-

kitzea da. Lan handia egiteko ahalmena eduki behar da, hori da garrantzitsuena. Gainera, ezaugarri fisiko onak badiu gazte horrek, emaitzak ikusgarriak izango dira.

**Jarraitu al duzu aurten Mugarri Alkesak egin duen denboraldia?**

Bai, gertutik jarraitzen dut Arrasateko taldeak egiten duena. EBA ligara igotzeko atarian egon dira, pena izan da igoera ez lortzea.

Niri ilusio handia egin zidan nirekin hasi ziren jokalariek hor ikustea. Benetan maila ona dutela erakutsi dute, **Japonian jokatu duen munduko txapelketa jarraituko al duzu?**

Ahalik eta partidu gehienak ikusten ditut, batez beste 7-8 partidu astean. Beraz, munduko txapelketa ere jarraituko dut. Joko onena egiten duenak irabaz dezala. AEBetako selekzioa da fabritoa, baina Europako beste batzuk ere ibiliko dira lehian.

**"Saskibaloiaz gozatzeko modu onena jokatzeko da; protagonista zuzena zera"**

**"Esatari lana oso atsegina da; gustuko dudana ikusi eta iritzia ematen dut"**

**"Irakasle baten bidez hasi nintzen saskibaloian; 10 urte eman nituen jokalaria bezala"**

**"Garrantzitsuena saskibaloian jokatzeko gogoia duen pertsona bilatzea da"**



# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Goienak antolatutako II. Danbaka musika lehiaketan parte hatzeko epea zabalik dago | 27
- Spermbirds hardcore talde aitzindariak Bergarako gaztetxean joko du bihar | 27

Oñatiko San Migel errotaren eta beste errota batzuen gaineko liburuxka kaleratu dute | 27

## OMARA MUSIKA TALDEA



JOSETXO ARANTZABAL

Txaloak (palmak) entzun ziren Aramaioko herriko plazan egubakoitz gauean.

**RUMBA-FLAMENKOA** | GASTEIZKO OMARA TALDEAK KONTZERTUA EGIN ZUEN EGUBAKOITZEAN ARAMAION

# Flamenko fusioa eta kaleko giroa ederto nahastu zituen Omara taldeak

*Plazako gau giroan Andaluzia aldeko doinuek hartu zuten Aramaio egubakoitz gauean. Flamenkoa oinarri, rumbara eta erritmo latindarretara jo zuen Omara taldeak*

Jon Berezibar

Gaueko giroa ezin hobea izan zen egubakoitzean. Onena trago bat hartu eta terraza baten egoitea izan zen, giroaz gozatzen. Proposamen horrekin etorri ziren Gasteiztik Aramaiora, barikuan, Omara taldekoak. Anboto tabernako terrazan alfonbra zabaldu eta bertan ipini zuten kale-eszenatokia, ikusleen maila berean eta kaleko giroan guztiz murgilduta. Bi perkusio-jolek, baxuak, gitarrak, biolin-joleak eta abeslari batek osatzen dute taldea.

Gau giro zoragarriari musikarien gogo bikainak lagundu zion. Hasieratik garbi utzi gura zuten ez zela euren kontzertu hutsa, girotzeko zeudela han eta

bakoitzak nahi zuena egin zezakeela, hitz, dantza edo esku-zartaka. Hala, zer esanik ez, giroa bermatuta egon zen gau osoan eta hasiera-hasieratik egon ziren ikusleak txaloekin (palmak) musikariak animatzen. Eta jasotako erantzuna ikusita, Omara-koak ere benetan gustura ibili ziren Aramaion.

### HEGOALDEKO HAIZEA

Flamenko kutsua galdu barik nahasketa edo fusiorako zaletasuna erakutsi zuten gasteiztarrek (arrasatear bat eta eskoriaztar bat ere badaude, hala ere). Aire flamenkoko abestietatik erraz igaro ziren erritmo latindarretara eta arazo barik kutsu moriskoko piezetara itzuli

zitezkeen. Amaia, biolin-jolea eta gitarra flamenkoak arduratu ziren, hein handi baten, abestiei merezitako ukitu mozarabiarra gehitzeaz. Oso planteamendu fla-

**Kaleko giroan guztiz murgildu zen taldea, ikusleekin berehala 'konektatu' zuten**

**Flamenkoaren sustraiak galdu barik fusiorako zaletasuna daukate**

menkoa dauka taldea; rumba bai, baina oso modu aberatsean aurkeztuz, sustraietara joaz eta bidean rock edo salsa erritmoekin ziprztinduta. Estilo arteko aldakortasun horrek sekulako bizitasuna ematen dio egiten duten musikari. Horrela, nahiz eta norberak flamenko eta rumba mundua askorik ez ezagutu, eskuragarri egiten dute musika mota hori. Era berean, perkusio landua eta aisetasun handikoa aurkeztu du Omarak. Sei hilabete bakarrik elkarrekin egoteko, batasun handia eta elkar ulertze ona daukatela ikusi zen eta gustu handiarekin jo zuten. Gauzak horrela, flamenko eta rumba giroan aparteko gaua izan zen egubakoitzekoa Aramaion.



OMARA MUSIKA TALDEA

IGOR SALA | PERKUSIO-JOLEA

# "Rumba flamenkoa egiten dugu, reggaea edo rocka nahasten, esperimentatzen"

J. B.

**Rockean hainbat urte egin eta gero flamenkoa, Andaluziako soinetara, hurbildu da Igor Sala arrasatearra. Bide berriak ezagutu gura ditu Omara proiektuarekin.**

## Nolatan hasi zineten jotzen?

Lehen rock munduan mugitzen ginen, baina musika gehiago ikasten hasi eta Pedro ezagutu nuen, taldeko gitarrak-jolea, SA taldeko kide izandakoa. Hor hasi ginen poliki-poliki flamenkoarekin jolasean, handik eta hemendik ikasten. Egia esan, flamenkoa benetan musika konplikatu da, asko ikasi behar da.

## Betidanik interesatu izan zaizu flamenkoa?

Ikasteko gogoia beti izan dut eta interesa ere bai. Flamenkoa bere alderik puruenean egitea oso gogorra da, zaila da. Asko ikasi behar da ondo jotzen ikasteko. Horrela, guk aire flamenkoa hartuta beste generoetara jotzen dugu, reggae apur batekin, rock beste apur batekin... Fusiora jotzen dugu gehiago.

## Zelan hasi zineten taldea osatzen?

Hasiera baten Pedro eta biok hasi ginen gauzatxoak egiten, gure kasa. Gero, Pedrok Oscar eta Victor ezagutu zituen eta gaitortzekoak beharren arabera gehitzen joan gara: biolina joko zuen norbait behar genuen eta Amaiarekin egin genuen topo. Horrela, poliki-poliki taldea osatzen joan gara. Joxean, adibidez, eskoriatzarra da eta perkusioa jotzen du. Gure *kanpamendu barea* Gasteizen dago, han biltzen gara eta han entseatzen dugu, han dago *zentrala*.

## Bai Pedro SArekin zein zu zeu rock mundutik zatozte. Aldaketa handia izango da, ezta?

Beste sentsazio batzuen bila goaz proiektu honekin, beste gauza bat da. Rocka oso ondo dago eta asko gozatu dugu, baina horretan ere jende mordoa dabil eta guk beste bide bati ekitea erabaki dugu, esperimentatu egin gura dugu eta aurrerantzean zer gertatzen den ikusi.

## Zein hizkuntzatan abestu ohi duzue?

Gazteleraz egiten dugu. Euskaraz transmititzen ere saiatzen gara, baina bik bakarrik dakigu taldean. Gure asmoa da abesti pare bat, behintzat, euskaraz ateratzea, nahiz eta kanpora begira egon.

## Zenbat denbora daramazue elkarrekin jotzen?

Batera sei bat hilabete daramatzagu eta dagoeneko makina bat kontzertu egin dugu. Aramaiokoa hogeigarrena izango da.



Omara taldean perkusioak egiten ditu Igorrek.

"Flamenko eta rumbarekin beste sentsazio batzuen bila goaz, esperimentatu egin nahi dugu, rockean urteak egin ditugu"

"Orain dela sei hilabete hasi ginen jotzen, baina Aramaiokoa egiten dugun 20. kontzertua izan da"

"Gure indarra zuzenekoetan dago, ze diskoa grabatu arren kontzertuak ematen jarraitzea baita lehentasuna"

Estudioa oso garestia da eta dirua nonbaitetik atera behar da...

## Bazabiltzate, beraz, diskoan pentsatzen.

Uztailaren 31n sartuko gara estudioan, hain zuzen ere. Garate estudioan grabatuko dugu, Haritz Harreguyrekin. Hala ere, diskoaren kontua ez da bilatzen joan garen zerbait. Grabatzeko gogoia daukagu, baina gure asmoa ez da diskoak saltzea. Gurearen moduko talde batentzat, gainera, ia pentsaezina da diskoa kalera-rtzea. Gure indarra zuzenean da.

## Rumba asko entzun da gurean Katalunia aldetik; hemen ere zabal-tzen hasi da?

Beste rumba estilo bat jorratzen dugu, flamenko ukitu handiagoarekin, Espainia hegoaldekoagoa. Badaude kubatarra eta beste mota bateko rumbak, baina guk andaluziarra egiten dugu. Kataluniakoa da Estopa eta Ojos de Brujo bezalakoa, esaterako. Guk rumbak bai baina bulerriak, soleak eta beste asko egiten ditugu. Oso mundu aberatsa da. Ojos de Brujo eta Kiko Venenoren nahasketa bat-edo egiten dugu, zer edo zer esatearren.

## • ARAMAIOKO PLAZA GIROTZEN



**ROCK GOGORRETIK FLAMENKOAREN BEROTASUNERA.** Rockaren mundutik flamenkora egin dute jauzi taldekideetako batzuek; Igorrek eta Pedrok, besteak beste. Planteamendua oso bestelako da estilo aldaketarekin, eta Andaluziako doinuekin ere eroso ibili ziren kideak. Abeslariak arraza berezkoa erakutsi zuen flamenkoa kantatzeko.




**KALEAN BERTAN.** Aramaioko herriko plazan, Anboto tabernaren parean ipini zuten alfombra baten gainean, lanpara, puxika eta argiekin apain-apain. Giroa itzela izan zen hango terrazan tragoa hartu eta Omarakoeekin gozatzeko. Taldekoak ere jator ibili ziren eta ikusleek palmekin lagundu zieten kontzertuan.

## ARRASATE

Plazan dagoen ZUK NAHI taberna errentan ematen da

INTERESATUOK DEITU:  
618 76 34 40  
605 76 08 29



Hirusta  
Jateetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

## JUAN ZELAIA VI. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota intzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 6.000 €

Lanak bidaltzeko:


Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Abuztuaren 31a arte

Tel.: 948 326535

soitxate@pamiela.org

Arauk: www.pamiela.org





**JAZZ-FUSIOA** | 'BERGARA, UZTAILEKO OSTIRALAK ESPOLOIAN' MUSIKA JAIALDIKO BIGARREN KONTZERTUA

# Malatu taldeak jazz-fusio estiloarekin Espoloiko jendetza liluratu zuen

*Uztaileko emanaldiak Bergarako Udalak Zuhazti eta Hamaika tabernen lankidetzarekin antolatutako kontzertuak dira*

Goreti Elortza

Malatu taldeak egin zuen egubakoitzean emanaldia Bergarako Espoloiko kioskoan, 22:30ean. Bergara, uztaileko egubakoitzak Espoloian musika jaialdiaren barruan bigarren kontzertua izan zen egubakoitzekoa.

Iñaki Gabilondo (ahotsa eta armonika), Ceferino Ferroni (saxoa), Laura Ortega (teklatura), Alberto De La Casa (baxua), Mikel Gartzia (gitarra) eta Luisja (perkusioa) dira Malatu jazz taldeko partaideak. Lehenengo biak bergararrak dira eta gainerakoak gasteizarrak. Lehen Anastua taldea osatzen zuten taldekide batzuek. Aurten ekin diote talde berri horri eta dagoeneko hainbat kontzertu egin dituzte. Eta gehiago ere egingo dituzte aurrerantz.

## JAMAICA ALDEKO DOINUAK ERE JO ZITUZTEN

Egubakoitz gauean jende asko batu zen Espoloian. Eta Malatu taldeak bikain erantzun zuen. Taldeak jazz-fusioa egiten du, hau da, jazz-a beste estilo batzuekin nahastuta; reggaearekin, esaterako. Izan ere, egubakoitzean Jamaika aldeko doinuak jotzera ere ausar-



JOSETXO ARANTZABAL

Malatu taldea egubakoitz gauean Espoloiko kioskoan egindako emanaldian.

tu ziren Malatukoak. Euren abestiak izan ziren eskaintako gehienak, euskarazko letrak zituztenak. Eta dantzara animatu zenik

ere egon zen. Oso giro polita sortu zuen jazz taldeak.

Bukaeran, Espoloian batutako jendeak gehiago eskatu

zuen, gustukoa zuten-eta entzundakoa. Malatu taldekoek beste bi abesti eskaini zituzten eta emanaldiari amaiera eman zioten.

## BI KONTZERTU GEHIAGO

Datorren asteetan ere egongo dira kontzertuak Espoloian. Uztaileko egubakoitzetarako plan bikaina daukazu, bada, hemen, askotariko musika estiloak ezagutzeko aukera ezin hobea.

## Datozenak

### UZTAILAK 21

• 22:30: Four Friends, jazz-a eta bluesa pop-rock ukituekin.

### UZTAILAK 28

• 22:30: Ortophonk, Gasteizko funkya.

**Bergarako bi kidek eta Gasteizko lauk osatzen dute Malatu taldea**

**Abesti propioak izan ziren kontzertuan jotako gehienak**

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)-eko **blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza


Prezioen eta ikastaren gaineko informazioa:  
[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) ·  
[azabarte@goiena.com](mailto:azabarte@goiena.com) ·  
943 76 92 70

**Goiena.net**  
Debagoieneko Interneteko ataria

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/4quattro4	/dragon-oriental	/ganesha	/maulanda	/pando
/argi-plastik	/dukiena	/garaia	/mayte	/richimaier
/arregi	/ego	/gorkagarai	/merkeopari	/udalaitx
/atai	/elejalde	/gorkataxi	/multiopticas	/udalaitz
/azkarate	/ezkutuorly	/gutzizeder	/ohiak	/urdeki
/joseba	/gallastegi	/irudisport	/okipark	/markiegi
/BZ-sistemas		/korozabaleta	/vitoria	/urbieta

Eta baita ere:  
[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)  
[www.ehmf.com](http://www.ehmf.com)





**DANBAKA))))))**

**Debagoieneko II. Musika Lehiaketa**

**PARTE  
HARTU  
NAHI?**

**Izena emateko azken eguna: irailak 19**

◆  
INFORMAZIO GUZTIA:

**[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)**





Kultur Errota egitasmoaren barruan etorri zen taldea Arrasatera.

JOSETXO ARANTZABAL

## Folkaren alderik garaikideena erakustera etorri ziren

*Arrasateko Ferrerías kalean ipinitako oholtza baten egin zuten kontzertua, eta folk moderno eta freskoa eskaini zuten*

J. B.

AED elkarteak antolatuta eta Kultur Errota egitasmoaren barruan, Bilboko Igelaren Trikimailua taldeak kontzertua egin zuten egubakoitzean Arrasateko Ferrerías kaleko plazatxoan. Doinu zeltiarrak izan ziren nagusi, baina ukitu modernoarekin, hori da-eta euren nahia: betiko abestiak doinu berriekin nahastea.

Doinu herrikoiak eta tradizionalak dituzte ardatz –doinu euskaldunak bai, baina baita bre-

toi edo irlandarrak ere–, baina tradizioari atxikitzeak ez duela zertan modernitateari muzin egin garbi utzi zuten. Urrunago joanda, ska eta punk ukituak ere nabari zitzaizkien hainbatetan, freskotasan handiarekin.

### FOLK ABERATS ETA MODERNOA

Aipatzekoa da boskoteak erabili zuten instrumentu sorta handia: akordeoi, mandolina, txistu, bateria... Aniztasun horrekin folk oso berritzailea egiten dute,

herrikoitik jo eta popetik, funk-tik edota erritmo biziagoetatik pasatuta. Folkaren munduan izena hartzen dabilen taldea da Bilboko hau eta dagoeneko badituzte disko pare bat –*Luzelek-trikopalu* eta *Kroa*–, maketez gain. Kontzertuak ematen ere ez da geldi egotea gustatzen zaion talde horietakoa.

Hala ere, jende gutxitxo gerturatu zen egubakoitzean Ferreríasko plazatxoan ipinitako tau-latxora. Gauerdia aldera animatu zen jende gehiago. Izan ere, Monterronen, ordu berean, aire libreko zine emanaldia egon zen eta handik irtetean Ferreríasera gerturatzen joan zen jendea eta giroa zertxobait animatzen joan zen. Ez larregi, hala ere.

## Antzuolako talde hasiberriek aukera izan zuten herrian bertan ezagutzera emateko

*Herriko bi talde, Des-kontrol, DJ Bull, The Txuleton's, Arianrod eta Anplitude izan dira txosna-gunean egon diren kontzertuak*

Goreti Elortza

Eguenean ireki zituzten Antzuolako txosnak, arratsaldean, Zurrategiko plazan. Jaietako lehenengo egunean herriko bi musika taldek jo zuten txosnetako kioskoan. Klakson eta Urrio, Pepi eta Iñigo hirukotea izan ziren taldeak. Hasiberriak diren bi talde horiek Antzuolako musika zaletasunari haize berriak eskaini eta etxeko musikaz gozatzeko aukera eman zieten antzularrei. Taldekideak oso gustura agertu ziren herrian jotzeagatik eta oso erantzun ona izan zutela aitortu ziguten.

Egubakoitz gauean, berriz, Des-kontrol oi! talde arrasatearra eta DJ Bull izan ziren aukeratuak. DJ hori etortzen den hirugarren

aldia izan da; jende dezente batu zen txosna inguruan.

### ZAPATUAN GEHIAGO

Zapatuan, 20:00etan presoan aldeko ekitaldia egin zuten txosnetan eta 22:00ak aldera herri afaria hasi zen. 200 pertsona inguru animatu ziren plazako arkupeetan egindako afarira. Txosna batzordeak eta Gazte Asanbladak antolatu dute herri afaria. Lehenago, domekan herri bazkaria izaten zuten, baina azken hiru urteotan zapatuan egiten dute afaria.

Afaldu eta gero, The Txuleton's oñatiarrak, Arianrod eskoriatzarrak eta Anplitude lekeitiarrak eskaini zuten euren musika txosna-gunean. Jende mordoia erakarri zuen kontzertuak.



Arrasateko Des-Kontrol taldeak barikuan egin zuen emanaldia.

JOSETXO ARANTZABAL

## Santa Marinako jaietako kontzertua

*Espoloian egin zuten Bergarako Udal Musika Bandak emanaldia atzo eguerdian, opor aurreko azkena*

Goreti Elortza

12:30ean izan zen kontzertua, Espoiko kioskoan. Jende ugari batu zen, eta Bergarako Udal Bandakoek sentimendu handia-

rekin egin zuten opor aurreko azken kontzertua.

### ERREPERTORIO ALAIA

Amparito Roca J. Texidorren pasodoble tipikoarekin eman zioten hasiera saioari. Segidan, *Magic Overture* T. Dossena, *La Gran Via* Chueca-Valverderen zarzuela eta *Caribbean Concerto* K. Vlaken suitea jo zituzten. Bukaeran, *Antzuolako Doinuak* A. Gz. Chirlaqueren lana eskaini zuten eta *Happy Tronbones* obra alaiarekin amaitu zuten kontzertua.



Begarako Udal Musika Banda bikain aritu zen atzo Espoiko kontzertuan.

IMANOL SORIANO



## Spermbirds hardcore talde aitzindariak Bergarako gaztetxean joko du bihar

*Talde kide bat min hartuta dagoela eta, bertan behera uzteko zorian izan dira, baina beste musikari bat dator haren ordeaz*

Leire Kortabarria

Europako hardcore talde aitzindarietako bat, Spermbirds, zuzenean entzuteko parada izango da bihar, martitzena. Bergarako gaztetxean joko dute, 20:30ean. Iaz ere izan zen Bergaran Alemaniako talde hori, eta "oso ondo" pasatu zutela gogoratzen dute. Ordukoa errepikatze gogoz etorriko dira, ziur.

Kontzertua bertan behera uzteko zorian izan ziren alemaniarrak; izan ere, Frank Rahm gitarrak bizkarrean min hartu du eta ezin mugitu dago. Hala ere, Coolerking taldeko gitarrak joleak joko du bere ordeaz. Horrez gain, Sperm-

birds orain 23 urteko kideak etorriko dira: Lee Hollis abeslaria, Matthias Götte bateria-jolea, Markus Weilemann baxu-jolea eta Roger Ingenthron gitarrak jolea. *Set an example* diskoko abestiak eta euren ibilbide luze-ko lan ezagunak joko dituzte.

Hardcore eta punk-rocka batzen dituzte, eta rock melodikoa ere egiten dute. 1983an sortu zen taldea; urte batzuen ondoren, atsedean hartu zuten, eta 2000. urtean bueltatu ziren agertokietara.

**TECHNO JAIALDIAK JAMEN**  
Rocka baino, technoa gustukoago dutenek ere izango dute hitzordu bat baino gehiago, kasu honetan Bergarako Jam aretoan.

Hala, Jambberri Hot session-Search and Destroy jaialdiak egiten ari dira areto horretan, Jazzberri zena gogoratze-ko. Hurrengo zapatuan, hilak 22, izango da, eta Errusia, Madril, Ciudad Real eta Euskal Herriko disko-jartzaileek giro-tuko dute jaialdia. 22:00etan hasiko da, eta sarrera eta edaria 15 euro da.

## Labur

### II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago

Bigarren aldiz, Danbaka musika lehiaketa antolatu du Goienak, eskualdeko musika taldeei aukerak emateko. Parte hartzeko, hiru abesti berri, biografia txiki bat, bi argazki eta harremanetarako datuak bidali behar dira Arrasateko 132 posta-kutxara edo [danbaka@danbaka.com](mailto:danbaka@danbaka.com) helbidera, irailaren 19a baino lehen.

Berritasun asko dakartza bigarren edizio honek: besteak beste, bakarlarari onenari ere saria emango diote; bestetik, irabazleak diskoak grabatzeaz gain, antolatzaileek kaleratu ere egingo dute.

### 'Todos nacemos vascos' antzezlanak ikusteko sarrerak salgai daude

*Todos nacemos vascos* antzezlanak Elgetako Espaloia antzokian ikusteko sarrerak martxa onean dabilta saltzen: dagoeneko ehunetik gora saldu dituzte. Hortaz, antolatzaileek dei egiten diete interesa dutenei lehenbailehen joan daitezela erostera. Goibeko elkarteak bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, 12.

Glu-Glu taldeak arrakasta handiz egin du antzezlan hori ibarreko beste herri batzuetan, eta orain ere harrera bera espero dute.

### Balio kooperatiboaren gaineko eskultura lehiaketa deitu dute

Eskultura lehiaketa deitu du Arrasateko Udalak, MCCren 50. urterekin lotuta. Hain zuzen, eskualdeko balio kooperatiboak islatuko dituen eskultura-lana eraikitzeke egin du lehiaketa deialdia.

Lehiaketara aurkezteko, txostena aurkeztu behar da, egilearen datuak eta lanaren maketa eta zirriborroak batuta, beste datu batzuen artean. Argibideak webgune honetan daude: [www.arrasate-mondragon.org/Udala/Txostenak/Eskulturalehiaketa](http://www.arrasate-mondragon.org/Udala/Txostenak/Eskulturalehiaketa).

## Hitzorduak

### OÑATIKO SAN MIGEL ERROTAREN ETA BESTE ERROTA BATZUEN GAINEKO LIBURUXKA KALERATU DU OÑATIKO KULTURA SAILAK I

Iaz berritu zuten Oñatiko San Migel errota, eta bisita gidatuak egiten dituzte orduz geroztik. Orain, hara joaten diren bisitariek informazioa jasotzeko beste bide bat izango dute: *El molino de San Miguel de Oñati* liburuxka, laster euskaraz ere kaleratuko dena.

Jose Antonio Azpiatzuk eta Juantxo Madariagak egindako liburuxka horretan, San Migel ez ezik, beste errota batzuen kasua ere aztertzen da, eta errotek Euskal Herriko ekonomian, sistema feudalean... izan zuten garrantzia azaltzen da 24 orritan. Oñatiko Turismo Bulegoan dute salgai. Argazkian, San Migeleko gari eta arto errota.



## ZINEMA I

• *Brokeback mountain* filma emango dute Eskoriatzan Gaur, astelehena, emango dute film hori Herriko plazan, 22:30ean.

• *El jardinero fiel* filma emango dute Aretxabaletan Bihar, martitzena, emango dute film hori Herriko plazan, 22:30ean.

• *Aupa Etxebeste!* filma emango dute Aretxabaletan Etzi, eguaztena, emango dute Asier Altuna bergararrak Telmo Esnalekin zuzendutako film hori, Herriko plazan, 22:30ean.

• *Amen* filma emango dute Elgetako Espaloia antzokian Costa-Gavras zuzendariaren *Amen* filma emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian, 21:30ean.

## IKUSKIZUNAK I

• *Magia emanaldia* egingo dute Elorrioren Mag Lari mago katalanak emanaldia egingo du uztailaren 21ean, egubakoitza, Elorrioko plazan, 22:30ean. Musikaire jaialdiak antolatu du. Argibide gehiago, [www.educats.net](http://www.educats.net) webgunean.

## IKASTAROKAK I

• *Hiznet soziolinguistikako ikastaroa* antolatu dute Hiznet soziolinguistikako ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak. Euskararen

egoera hobeto ulertzeko eta normalizaziorako estrategiak finkatzeko oinarriak ematen ditu. Argibideak: 943 32 63 98.

## ERAKUSKETAK I

• *Arrasateko zeramika ikasleek erakusketa ipini dute* Loixe elkarteak erakusketa du Monterronen uztailaren 25era arte. Bukatu berri den ikastaroan, 15 ikasle ibili dira Loixen, eta horien 50 bat lan batu dituzte erakusketarako. Horien artean, eskulturak, tornurako piezak, koadroak, muralak eta *racú*-rako piezak daude, beste batzuen artean.

## LEHIAKETAK I

• *Film laburren lehiaketa* antolatu dute Bergaran I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozein-dako. Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxean. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenaren dako 100 eurokoa.

• *Oñatiko jaietako kartel lehiaketa* antolatu dute Herriko jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, oñatiarrendako eta Oñatin bizi direnendako. Derrigorrezko testua hau da: *Oñatiko jaixak 2006*. Kultura etxean edo udaletxean utzi behar dira lanak. 250 eta 125 euroko sari bana emango dute.

## • Gomendatzen Dizut...

**sariketa zabalik dago**  
Gomendatzen Dizut... lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago, eta antolatzaileen, Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuen esanetan, uda da parte hartzeko sasoirik onena. Edozein oporraldiko gomendioak eskatzen dituzte. Argibideak, [www.aizue.com](http://www.aizue.com) blogean.

• **Elgoibarko kirol argazki lehiaketa antolatu dute**  
Kirol argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. Norberak gehienez lau argazki aurkez ditzake, 24 x 30 cm-koak. 200 eta 100 euroko sari bana dago 16-29 urte bitarteko eta hortik gorako kategorietan. Argibide gehiagorako, deitu 943 74 44 15 telefonora.

• **III. Euskal Herriko Grafiti lehiaketa antolatu dute**  
Hirugarren aldiz antolatu du Topaguneak Euskal Herriko grafiti lehiaketa, eta taldeek egin nahi dituzten grafitien zirriborroak bidaltzeko epea zabalik dago. Argibideak, [gazteak\\_2@topagunea.com](mailto:gazteak_2@topagunea.com) helbide elektronikoa.

## OHARRAK I

• **Biblioporrak gida dago udal liburutegi guztietan**  
Ibarreko udal liburutegiek Udako Biblioporrak gida prestatu dute. Liburu eta ikusentzunezkoen 70etik gora gomendio batzen ditu.



**Eguraldia**



**Eguaztenetik aurrera behera egingo du tenperaturak**

Ederki eutsiko dio gaur beroari. Erabat garbi egongo dira zeruak, baina eguratsaren hezetasuna handitu egingo da pixka bat, eta horrek sargoria are agotuko du. Bihar, martitzena, bero handia egingo du berritro ere. Eguzkitsu izango da goiza, baina arratsalderako ekaitza egin lezake. Horren ondorioz, gauerako freskatu egingo du. Eguaztenean areagotu egingo dira lainoak, nahiz eta ostarte zabalak izango ditugun. Tenperaturaren beheranzko jorak jarraitu egingo du. Eguenean ere apur bat jaitsiko da tenperatura eta ekaitz arriskua egongo da. Barikuan laino gutxiago izango dugu.

**Guardiako farmaziak**

**ARRASATE**

<b>Astelehena, 17</b>	Irizar	Erquin, 11 (943 79 12 39)
<b>Martitzena, 18</b>	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
<b>Eguaztena, 19</b>	Ruiz Perez	Maalako Arrabala, 31 (943 79 14 09)
<b>Eguena, 20</b>	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
<b>Egubakoitza, 21</b>	Irizar	Erquin, 11 (943 79 12 39)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 17</b>	Urritikoetxea	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
<b>Martitzena, 18</b>	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
<b>Eguaztena, 19</b>	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
<b>Eguena, 20</b>	Urritikoetxea	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
<b>Egubakoitza, 21</b>	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)

**OÑATI**

<b>Astelehena, 17</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
<b>Martitzena, 18</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
<b>Eguaztena, 19</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
<b>Eguena, 20</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
<b>Egubakoitza, 21</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)

**ARETXABALETA**

<b>Astelehena, 17</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Martitzena, 18</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Eguaztena, 19</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Eguena, 20</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
<b>Egubakoitza, 21</b>	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

**Telefono jakingarriak**



**OSASUNA / LARRIALDIK**

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutzte Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hilttegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

**Zozketak**

**BONOLOTOA**

Astelehena, 10  
12 · 14 · 17 · 40 · 43 · 47  
Osagarria: 49 | Itzulketa: 2

Martitzena, 11  
3 · 25 · 32 · 38 · 39 · 41  
Osagarria: 11 | Itzulketa: 4

Eguaztena, 12  
2 · 12 · 15 · 24 · 28 · 37  
Osagarria: 46 | Itzulketa: 1

Egubakoitza, 14  
5 · 10 · 20 · 25 · 45 · 48  
Osagarria: 11 | Itzulketa: 3

**ONCE**

Astelehena, 10 **12.546**

Martitzena, 11 **24.504**

Eguaztena, 12 **47.300**

Eguena, 13 **18.578**

Egubakoitza, 14 **45.539**

Kupoitzarra (060 seriea)

Domeka, 16 **35.770**

Kupoitzarra (030 seriea)

**LOTERIA PRIMITIBA**

Eguena, 13  
3 · 4 · 9 · 10 · 45 · 49  
Osagarria: 26 | Itzulketa: 0

Zapatua, 15  
4 · 6 · 7 · 17 · 27 · 48  
Osagarria: 33 | Itzulketa: 6

Domeka, 9 (Saritzarra)  
3 · 15 · 20 · 46 · 49  
Itzulketa: 7

**Gazte zerbitzuak**

**BEKAK |**

- **Merkataritza.** Eusko Jaurlaritza. Merkataritza Aholkulari Teknikoak trebatzeko 25 beka. Epea: uztailaren 20tik abuztuaren 21era.
- **Mugikortasuna.** Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Ikasketak euren erkidegotik kanpo egiten dituzten unibertsitateko ikasleentzako mugikortasun bekak. Epea: urriak 31.
- **Ikasketak.** Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Unibertsitate ikasketetarako eta unibertsitatekoak ez direnetarako bekak, 2006-2007 ikasturterako. Epea: urriaren 31 eta karrera-amaierako proiektuak, martxoaren 16a.

**EKINTZAK |**

- **Kontzertua.** Campbell Brothers. Gospel elektrikoa.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net  
**BERGARAKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
Kultura etxea. 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
Foruen plaza 4. 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net



Uztailaren 23an, domeka, Monterron parkean, 10:30ean.  
• **'Zure iragarkiak.net'.**  
Hemengo gazteon iragarkiak: Trukeak, salerosketak, etxebizitza, autoa konpartitu, jendea, lana...



**Antzuola:**

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

**Elgeta:**

- Kioskoa

**Bergara:**

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

**Arrasate:**

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

**Aretxabaleta:**

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

**Eskoriatza:**

- Dorleta liburudenda

**Leintz Gatzaga:**

- Labidea

**Aramaio:**

- Plazako kioskoa

**Oñati:**

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia



## Zorion agurrak



ARRASATE  
**Ane Olazabal**  
Uztailaren 15an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxeokak.



ARRASATE  
**Bingen Aranzandi**  
Uztailaren 16an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Bizkaino**  
Uztailaren 17an, 7 urte. Zorionak, amaren eta familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Oihan Azkarate**  
Uztailaren 18an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat! Aitaxo eta amatxo.



ARRASATE  
**Iker Zubizarreta**  
Uztailaren 23an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat. Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Itsaso Berezibar**  
Uztailaren 30ean urtebetetzea. Zorionak, lankideen partetik.



BERGARA  
**Nora Gabilondo**  
Uztailaren 14an, urte bat. Zorionak eta patxo bat. Etxekoak.



BERGARA  
**Maddi Mujika**  
Uztailaren 15ean, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoan partetik!



BERGARA  
**Aritz Rodrigo**  
Uztailaren 18an, 9 urte. Zorionak! Ama, osaba-izebak eta Iraia.



BERGARA  
**Malen Sanpietro**  
Uztailaren 22an, 7 urte. Etxeko guztien partetik, zorionak, printzesa.



BERGARA  
**Miren Txurruka**  
Uztailaren 24an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoan partetik!



BERGARA  
**Unai Txurruka**  
Uztailaren 27an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoan partetik!




ARETXABALETA  
**Laia Arriola**  
Uztailaren 17an, 4 urte. *Mila kilo zorion...* Etxeko guztiak.



ARETXABALETA  
**Mikel Egia**  
Uztailaren 21ean, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat. Etxekoak.




OÑATI  
**Izaskun Bolinaga**  
Uztailaren 23an urtebetetzea. Zorionak, lankideen partetik.



OÑATI  
**Inazio Arregi**  
Uztailaren 31n urtebetetzea. Zorionak, lankideen partetik.



ANTZUOLA  
**Aitor Atxa**  
Uztailaren 28an, 30 urte. Urte askotarako eta patxo handi bat! Familiakoak.



ELGETA  
**Leire Azkarra**  
Uztailaren 17an, 13 urte. Zorionak, etxekoan partetik!

## Jaiotakoak



**Ibai Alonso Santacruz**  
Antzuola • 2,740 Kg. Uztailaren 9a.  
Gurasoak: Nerea (Antzuola) eta Marcos (Arrasate). Argazkian aitarekin.




**David Avesilla Sabando**  
Arrasate • 2,780 Kg. Uztailaren 10a.  
Gurasoak: Cir (Ekuador) eta Oiga (Ekuador). Argazkian umea kuman.



**Enaitz Arroyo Alonso**  
Arrasate • 3,500 Kg. Uztailaren 11.  
Gurasoak: Rakel (Arrasate) eta Jon Mikel (Arrasate). Argazkian aitarekin.



**Libe Gaztañaga Ugarte**  
Oñati • 3,010 Kg. Uztailaren 11. Gurasoak: Edurne (Oñati) eta Enrike (Zumarraga). Argazkian umea kuman.



**Urko Lozano Etxaniz**  
Elgeta • 3,600 Kg. Uztailaren 11.  
Gurasoak: Eider (Elgeta) eta Eleder (Sestao). Argazkian haurra amarekin.



**Iraia Loiti Iraola**  
Arrasate • 3,400 Kg. Uztailaren 12a.  
Gurasoak: Nagore (Arrasate) eta Andoni (Arrate). Argazkian amarekin.



**Iradi Unamuno Barona**  
Arrasate • 3,910 Kg. Uztailaren 13a.  
Gurasoak: Leire (Arrasate) eta Igor (Arrasate). Argazkian amarekin.



**Xabier Alonso Berezibar**  
Antzuola • 3,600 Kg. Uztailaren 12a.  
Gurasoak: Ainhoa (Aretxabaleta) eta Iñigo (Antzuola). Umea amamarekin argazkian.



**Gorka Elkorobarrutia Larringan**  
Eskoriatza • 2,860 Kg. Ekainaren 12a.  
Gurasoak: Oihana (Eskoriatza) eta Iñaki (Gatzaga). Argazkian umea amarekin.



**Iare Otxoa Retolaza**  
Elgeta • 2,860 Kg. Ekainaren 17a.  
Ama: Hiart (Elgeta). Argazkian Gloria mamarekin.

## Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIA**k egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**

## Hildakoak

**Juliana Lamarain Azkarate**  
Bergaran, uztailaren 16an. 88 urte.  
**Dolores Iñarra Osa**  
Bergaran, uztailaren 16an. 89 urte.

**Julia Arkauz Agirre**  
Oñati, uztailaren 16ean. 79 urte.  
**Jacinto Ortueta Irasuegi**  
Aramaio, uztailaren 16ean. 81 urte.

## ESKER ONA Carlos Ginart Arzamendi

Arrasaten hil zen 2006ko uztailaren 10ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko uztailaren 17an.



**ESKELAK**  
ASTELEHENKO GOIENKARIAN  
85 euro  
943 25 05 01



**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7  
'Uda giroan' | 11:10

**Ainhoa Aznares**

Iruñeko Udalean zinegotzi da Ainhoa Aznares, PSOE alderdia ordezkatuz. Ama Antzuolakoa dauka Aznaresek eta egunotan gurean egon da. Antzuolako jaien, San Ferminen eta Iruñeko eta Nafarroako kontuen gainean berba egingo digu gaurko irratsaioan.

**Oñati Irratia**

FM 107.4  
'Egurdiko saioa' | 12:15

**Biktimen parte-hartzea bake prozesuetan**

Oñatin egin berri duten *Lege soziologia giza eskubideen zerbitzura bake prozesuetan* izenburuko udako ikastaroa dela eta, biktimen parte-hartzeari buruzko erreportajea eskainiko dute gaurko irratsaioan.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4  
'Faktoria' | 10etatik aurrera

**Udako giroa aztertzeako konexioak egingo dituzte**

**Radio Euskadi**

FM 98.2  
'Boulevard' | 10:30

**Barraken segurtasuna aztergai**

**Herri Irratia**

FM 99.8  
'Hondartzaz hondartza' | 10:00

**Udako jaiak eta bestelako kontuak**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 17




**Elgetako Mendiko Kriteriuma 21:15**

Elgetan jokatutako Mendiko Txirrindularitza Kriteriumari arreta berezia eskainiko diote denboraldiko azken *Harmailatik* saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa: Mihi arraina.
- 14:30 MI. Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Zera dio: Kike Amonarri eta Mikel Etxagibel.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Sustrai.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Behazulo.
- 19:45 Berria. Deiane Arrieta.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berria. Goiatz Arana.
- 21:15 Harmailatik: Elgetako mendiko kriteriuma.
- 21:45 Berria.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Berria.
- 23:15 Jazz.
- 23:45 Berria.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 18



**'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 22:15**

Miren Elgarresta, Larraitx Ugarte, Ainhoa Larrañaga eta Jon Iñaki Lasa izango dira gaurko gonbidatuak. Gorka Etxabek aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI. Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbako. Potemkin.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Sarako itzulia.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berria.
- 21:15 Jaiak 2006: Antzuolako jai nagusiak.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Lesakako San Ferminak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berria.
- 23:15 Segurako Erdi Aroko Azoka.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 19



**'Jaiak 2006': Lesakako San Ferminak 23:15**

Lesakako San Fermin jaietako buruzko saio berezia ikusteko aukera izango da gaur GOITBn. San Ferminetako giroarekin etxean gozatzeko aukera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbako. Potemkin.
- 14:30 MI. Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaiak 2006: Antzuolako jai nagusiak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Segurako Erdi Aroko Azoka.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustrai.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berria.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Debarri: Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariek.
- 22:45 Berria.
- 23:15 Jaiak 2006: Lesakako San Ferminak.
- 23:45 Gaurkoak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 20



**Mankomunitateko ordezkariek 'Debarri'-n 15:47**

Bezperan eskaintako saioaren errepikapena bazkalostean. Mankomunitateko ordezkariek izango dira Alberto Gorritiberearekin solasean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Klip@k.
- 14:30 MI. Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustrai.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Debarri: Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariek.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:45 Iparorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea: Sarako itzulia.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazkiak.
- 20:45 Berria.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berria.
- 23:15 Harmailatik.
- 23:45 Albisteak.
- 23:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 21



**'Behazulo' saioa, Goiatz Aranarekin 21:15**

Debagoieneko eragiten dizkiguten gaiak plazaratzen dituzte astero *Behazulo* saioan. Goiatz Aranarekin.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI. Egurdia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparorratza.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Erreportajea.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz.
- 19:45 Albisteak. Julen Iriondo.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berria.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Albisteak. Julen Iriondo.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berria. Deiane Arrieta.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**



**"Oso nekatuta iristen dira, baina gustura. Etxetik irten eta hona iritsi bitartean 25 orduko bidaia egiten dute"**

BIBI ANDUEZA |  
BUBISHER ELKARTEA  
Berria, 2006-07-14



**"20 talde aukeratu beharrean 19 aukeratu dituzte Danbakako epaimahaiak. Bestea publikoak aukeratu du"**

IKER BARANDIARAN |  
GOIENKARIA  
Berria, 2006-07-13

**Segurako Erdi Aroko Azoka**

SAIO BEREZIA  
Martitzenean, uztailaren 18an,  
23:15ean





Uztailaren 17a: 095 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 17, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

**24 euro**

2006 bukaera harte.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Arantzazu Larrañaga Elorza (Bergara)
- Jose Luis Landa Urzelai (Eskoriatza)

Sei lagunentzako EUSKALTEL EUSKADI taldeko 12 kamiseta (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Miren Abarisketa Arriaran (Arrasate)
- Aitor Aginagalde Garitano (Bergara)
- Bakarne Larrea Telleria (Antzuola)
- Tomas Lasagabaster Olaziregi (Eskoriatza)
- Ernesto Uriarte Zubia (Oñati)
- Nerea Zubizarreta Pedregal (Aretxabaleta)

## Uztailaren 24ko sariak



**DONOSTIAKO  
AQUARIUMa**  
bisitatzeko bi gonbidapen.  
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)





## Hamarrekoa

JESUS MARI AGIRRETXEA 'KEU' | MUSIKARIA

"Ilusioz lan egiten dut; urteak aurrera doaz eta gehien gustatzen zaidana egiten nabil"



ASTELEHENA GOIENKARIA

Ondarroako mutil peto-pettoa da Keu. Gitarra jotzen sekulako eskarmentua du. Hainbat musika taldetako partaide izan da: besteak beste, Etsaiak eta Fjord taldeetan ibili da. Orain, gitarra elektrikoa irakasten du Soraluzen eta Ondarroa eta UEK taldean jotzen du. Zaletasun ugari ditu: dardotan jokatzeko, borroka arteak, txakurra paseatzeko... eta, nola ez, musika.

Amagoia Lasagabaster

**1. Nor da Jesus Maria Agirretxea?** Ondarroako 32 urteko mutila. Gitarra irakaslea naiz eta UEK izeneko taldean jotzen dut. Hala ere, Jesus Maria izenarekin amonarendako bakarrik naiz ezaguna. Gainerakoek Keu deitzen didate.

**2. Zergatik Keu?** Ez dakit, mutil koskorra nintzen la jarri zidaten izen hori. Badakit Ondarroan Jesus Mari izeneko beste bi herritarri ere horrela deitzen dietela.

**3. Non gelditu ziren zure Etsaiak?** Ni 20 bat urterekin hasi nintzen taldean, eta zazpi disko grabatu genituen. Duela lau urte, taldekide bakoitzak bere proiektuak zituela-eta, banatzea erabaki genuen. Hala ere, jendeak oraindik deitzen digu, eta aurten, sei kontzertu ematea erabaki dugu.

**4. Etsaiak taldeak lotura handia du Mexikorekin?** Bai, bi disko eta bi bira egin ditugu han. Leku zoragarria da. Askotariko aukerak ematen ditu; onddoak jan eta mendian gazaitezke edo Mexi-

koko hiriburuan kontrola galdu. Era berean, esperientzia gogorra izan zen.

**5. Zer gertatu zen Fjord taldearekin?** Hasieran ideia batzuk genituen eta horri jarraituz kaleratu genuen lehenengo diskoa. Bigarrena egiteko, berriz, ez ginen ados jarri eta hortxe utzi genuen. Edonola ere, harro gaude egindakoaz.

**6. Eta orain UEK taldearekin lau disko. Nola da posible?** Gustura eta ilusioz lan egiten dut. Urteak aurrera doaz eta gehien gustatzen zaidana egiten nabil.

**7. Azkenak Heltzearen egunak izena dauka. Zuk zer daukazu heltzearekin?** Gauza ugari, espero. Osasunarekin jarraitzea, lagunekin kontakturik ez galtzea, nire herrian aske sentitzea...

**8. Gitarra irakaslea era bazara. Euskal Herrian rockak ez du dirurik ematen?** Gero eta zailago dago. Zuzeneko kontzertuak behar-kada izan dute. Hala ere, uste dut gauza ugari egin daitezkeela musika alorrean.

**9. Limurtzaileak dira gitarra-rraren kurbak?** Bai, zerbait izango du. Hamalau urterekin hartu nuen aurreneko gitarra bat eta oraindik ez dut albora utzi, beraz, zerbait izango du...

**10. Oporretarako planik?** Irakaslea izanik, aspalditik nago oporretan. Menorcan izan naiz zazpi egunez eta aurrerago ere joango naiz norabait. Ez dut pentsatu, opor luzeak ditut.



### Biharamuna

Leire Lardizabal

## Karmelo beti frentean

Azken elkartu gintuan Besaiden hire 79. urtebetetzea ospatzeko. Hire etxeok, lagunak eta hire inguruan ibiltzen gintuan hainbeste ezagun... kantuz eman nahi izan dizkiagu zorionak. Ez duk egon hi haizen gutzia oroitarazteko beharrik. Txironek ondo esan zuen moduan, han egon gintuan guztiok ezagutzen haugu eta. Manifestaldiak, herri batzarrak, espexetarako bisitak, herri bazkariak eta hogeitertetik gora asteartetako enkarteladan hutsik egin gabe! Han ezagutu hindugun batzuk. Hi baino berrogeita hamar bat urte gutxiago izanda, niretzako umiltasunez, eskubide ororen alde lanean etengabe aritu den sinbolo bat haiz. Eta halako pertsonak, hi bezalakoak dituk besteoi askatasuna geroz eta gertuago diatzen ikustarazten digutenak. Zapalkuntzarik onartu gabe bidea eginez, atzetik etorri garenoai ametsak horrela bakarrik betetzen direla erakutsi diguzue. Edonori laguntzeko prest beti, ez duk eta inoiz ezetzik esaten jakin. Eta sekula etsipenari kantzarik eman ez dion pilotaria haiz... beti izan duk eta ondoan hire gar hori piztuta mantentzen lagundu hauen lagun mina, Mertxe. Atzokoan ere asko geratu hintuan etorri ezinda, baina gogoz kantatu genizkian hire lagunek prestatutako bertsoak, sakabanatutako azken euskal presoak eta munduko beste puntan dauden iheslariek ere entzuteko moduan. Eta hik ere entzungo hituela pentsatzen diagu. Eta zer gehiago esan... Karmelo Zubillaga, hi beti egongo haizela frentean!

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

WEBGUNEAN → www.smsoinu.com

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

**smsoinu**

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

- Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**  
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**  
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**  
Askatasun egarri (Lin Ton Taun) | **ASKATA**  
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**  
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**  
Dub manifest (Fermín Muguruza) | **DUB**  
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**  
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**  
Eks dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**  
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**  
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**  
Etorrizuna (Etsaiak) | **ETORKI**  
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**  
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

- Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**  
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**  
Hegal egiten (Itzi) | **HEGAL**  
Ikusi (Deirium Tremens) | **IKUSI**  
Murgia (Ken7) | **KEN**  
Inpernuen ate joka (Gatibu) | **INPER**  
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**  
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**  
Lau Teillatu (Itzi) | **LAUTZ**  
Laztana (Lazten) | **LAZTA**  
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**  
Loreboa (EXKXU) | **LORE**  
Marea Gora (Itzi) | **MAREA**  
Musturrek sartunde (Gaibu) | **MUSTURREK**  
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**

- No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**  
Salve (La Polla) | **SALVE**  
Sari Sarii (Kortatu) | **SARRI**  
Sorginen Jaizean (Exkixu) | **SORGIN**  
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**  
Txus (La Polla) | **TXUS**
- Folk**  
Arratsalde honetan (Sorotan Beka) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pantoba) | **BAI**  
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bizkaia Maita (Benito Lerbundi) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herria Euskaraz (Osakoni) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren balada (Osakoni) | **EUSKALDUN**

- Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Osakoni) | **FURRA**  
Galziera noa (Osakoni) | **GAUZIERA**  
Gemikako Arbolak (Gortzel Mendibil) | **GERNIKA1**  
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**  
Izarren hautsa (Kobier Lera) | **IZARREN**  
Lepoan hartu ta (Pantoba/Peto) | **LEPOAN**  
Nere herriko neskatxa maita (B.Leranduri) | **NERE**  
Oli Ama Euskal Herria (Mikel Urdangarín) | **ONIA**  
Tirakuri (Osakoni) | **TIRA**  
Txatxamatxinabatu (Mikel Urdangarín) | **TXATXA**  
Txoria bori (Mikel Laboa) | **TXORIA**  
Zaindu maita duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**

**LOGOAK (SMS 1)**  
KODEA



**OHARRAK**  
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)

Berlan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.  
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatuzko, jarraitze zure humitzailearekin harremanetan. Alta emateko duzu eta Ki jaitsera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu gutxietan dela eta GPS sisteman alta ematea doan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. \* Vodafone: deitu 123-ra. \* Movistar: deitu 609-ra.  
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.